

BESTELAKO XEDAPENAK

ETXEBIZITZA ETA HIRI AGENDA SAILA

4426

AGINDUA, 2024ko uztailaren 1ekoa, Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburuarena, Elantxobeko Portuko Antolamenduko Plan Bereziari behin betiko onespena ematekoa.

1.– Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako orduko sailburuaren 2019ko uztailaren 23ko Aginduaren bidez, hasierako onarpena eman zitzaion Elantxobeko Portuaren Antolamendu Plan Bereziari, eta erabaki zen jendaurreko informazioaren izapidera eramatea (baita haren Ingurumen Azterketa Estrategikoa ere), 45 egunean, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 97. artikulua kontuan hartzekotzat jotzen duen 95.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz. Informazioa jendaurrean jartzeko izapidearen erabakia gauzatzeko, 2019ko uztailaren 30ean iragarkiak jarri ziren nola Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian hala *El Correo* egunkaria.

2.– Era berean, eta epe berean, eraginpeko administrazio publikoei eta alde zuzeneko pertsona interesdunei kontsultatzeko izapidea egin behar zela erabaki zen, garai hartako Ingurumen Administrazioaren zuzendariaren 2018ko maiatzaren 4ko Ebazpen bidez formulatutako Irismen Dokumentuaren arabera.

3.– Emandako epean, zenbait alegazio-idazki aurkeztu ziren, eta Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak aztertu eta erantzun zituen, plan hau sustatu duen aldetik.

4.– Era berean, zenbait txosten sektorial jaso dira, eta horiek kontuan hartu dira Elantxobeko Portuko Antolamenduko Plan Berezia idazterakoan.

5.– Bestalde, 2019ko irailaren 25ean, Elantxobeko Udalak espedientearen gaineko txostena eman zuen, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 97.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

6.– EAEko Lurraldea Antolatzeko Batzordeko Bizkaiko Hirigintza Plangintzaren Atalak aldeko txostena eman zuen, apirilaren 8ko 2/2020 saioan.

7.– Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako orduko sailburuaren 2020ko maiatzaren 5eko Aginduaren bidez, behin-behinean onartu zen Elantxobeko Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedientea.

8.– 2024ko urtarrilaren 14an, Kostaldearen eta Itsasoaren Jasangarritasuneko Zuzendaritza Nagusiak eman zuen aldeko txostena.

9.– Bestalde, ingurumen-ebaluaziorako prozedurari dagokionez, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako orduko sailburuaren 2020ko uztailaren 2ko Ebazpenaren bidez, Elantxobeko Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren ingurumen-adierazpen estrategikoa egin zen, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen, 2020ko uztailaren 27an. Bestalde, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariaren 2022ko irailaren 12ko Ebazpenaren bidez, Elantxobeko Portuaren Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren ingurumen-adierazpen estrategikoaren indarraldia 2024ko uztailaren 27ra arte luzatzea erabaki zen; ebazpen hori 2022ko urriaren 20ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen.

10.– Plan Bereziaren izapidetzeari dagokionez, kontuan hartu da Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 97. artikuluan ezarritakoa, eta, igorpen bidez, lege horren 95. eta 96. artikuluetan eta martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 31. eta 32. artikuluetan ezarritakoa (46/2020 Dekretua, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen).

11.– Prestatutako dokumentazio teknikoak plan berezi bat osatzeko behar diren baldintzak betetzen ditu, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 69. artikuluan xedatutakoaren arabera.

12.– Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89.5 artikulua xedatzen duenez, lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratuko dira behin betiko onesten diren erabakien eduki osoa eta, gutxienez, hirigintza-arauena. Adierazten du, orobat, behin betiko onarpen-erabakia dagokion lurralde historikoan zabalkunde handiena duen egunkarian edo egunkarietan ere argitaratuko dela.

13.– Martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 7.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, Elantxobeko Portuaren Plan Berezi honen behin betiko onarpenaren publizitatearekin batera, gutxienez agindu honen edukia eta hirigintza-arauak emango dira (I. eranskinean daude arauok).

14.– Bestalde, martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 7.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta egin zaien planei dagokienez, informazio hau erantsi da II. eranskin gisa:

a) Laburpen bat, alderdi hauek jasoko dituena:

1.– Nola integratu diren planean ingurumen-arloko alderdiak.

2.– Planean nola hartu diren kontuan ingurumen-azterketa estrategikoa, jendaurreko informazioaren emaitzak eta kontsulten emaitzak, barnean hartuta, hala badagokio, mugaz gaindiko kontsultak eta ingurumen-arloko adierazpen estrategikoa, bai eta prozesuan sortutako desadostasunak ere, halakorik izan bada.

3.– Aukeratutako hautabidea hautatzeko arrazoiak, aintzat hartutako gainerako hautabideekin alderatuta.

4.– Zer helbide elektronikotan jarriko duen jendaurrean organo substantiboak planaren eduki osoa.

b) Planaren aplikazioak ingurumenean izandako eraginen jarraipena egiteko hartu diren neurriak.

15.– Etxebizitza eta Hiri Agenda Sail honek eskumena du Elantxobeko Portuko Plan Berezia behin betiko onartzeko agindu hau emateko, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 97. artikuluan eta Lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 32. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aplikatu beharreko legeria aztertu ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Elantxobeko Portuko Antolamenduko Plan Berezia behin betiko onartzea, bai eta haren I. eranskina (Hirigintza Arauak) eta II. eranskina (Ingurumen Alderdiak Txertatzearen Laburpena) ere.

2024ko irailaren 25a, asteazkena

Bigarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, eta baita Bizkaiko Lurralde Historikoan zabalkunde handiena duen egunkarian ere.

Agindu hau behin betikoa da eta administrazio-bidea amaitzen du; beraz, honen aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan, bi hileko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko uztailaren 1a.

Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburua,
DENIS ITXASO GONZÁLEZ.

2024ko irailaren 25a, asteazkena

ELANTXOBEKO PORTUKO ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIARI BEHIN BETIKO
ONESPENA EMATEKO ETXEBIZITZA ETA HIRI AGENDA KO SAILBURUAREN
AGINDUAREN I. ERANSKINA


HIRIGINTZA-ARAUAK

2024ko irailaren 25a, asteazkena

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ELIKADURA, LANDA
GARAPENA, NEKAZARITZA ETA
ARRANTZA SAILADEPARTAMENTO DE
ALIMENTACIÓN, DESARROLLO
RURAL, AGRICULTURA Y PESCA

ELANTXOBEKO PORTUA

Elantxobeko Portuaren Hiri Antolamenduko Plan Berezia

2024ko EKAINA

I. ERANSKINA: ORDENANTZA ARAUTZAILEAK (HIRIGINTZA-ARAUDIA)

2024ko irailaren 25a, asteazkena



HIRIGINTZA-ARAUDIAREN AURKIBIDEA

I. KAPITULUA – ALDERDI OROKORRAK

1. ART. XEDEA.
2. ART. PLAN BEREZIAREN OSAGAIK
3. ART. OSAGAIEN ARAUZKO BALIOA
4. ART. ZEHAZTAPENEN HIERARKIZAZIOA

II. KAPITULUA – ZONIFIKAZIOA ETA ERABILERA XEHATUAK

5. ART. KALIFIKAZIO GLOBALAREN DEFINIZIOA
6. ART. KALIFIKAZIO XEHATUAREN DEFINIZIOA

III. KAPITULUA – ERABILERA-BALDINTZAK

7. ART. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO PORTUEI ETA ITSAS GARRAIOARI BURUZKO EKAINAREN 28KO 2/2018 LEGEAN PORTUETARAKO ZEHAZTUTAKO ERABILERA OROKORRAK
8. ART. ITSASOKO SARBIDE-ZONAN – UR LAMINAN (IS.Z) BAIMENDUTAKO ERABILERAK
9. ART. LEHORREKO SARBIDE-ZONAN – IBILGAILUEN ETA OINEZKOEN BIDEETAN (LS.Z) BAIMENDUTAKO ERABILERAK:
10. ART. EKIPAMENDU-ERABILERARAKO ETA PORTU-ZERBITZUETARAKO ZONA (EK.Z) BAIMENDUTAKO ERABILERAK
11. ART. PORTUKO ZERBITZU- ETA AZPIEGITURA-ZONAN (PA.Z) BAIMENDUTAKO ERABILERAK
12. ART. HIRI-AZPIEGITURETAKO ZONAN (HA.Z) BAIMENDUTAKO ERABILERAK
13. ART. ESPAZIO LIBREEN ETA HONDARREKO BERDEGUNEEN ZONAN (EL.Z) BAIMENDUTAKO ERABILERAK

IV. KAPITULUA – HIRIGINTZA-APROBETXAMENDUAREN ERREGULAZIOA, ERAIKUNTZA DUTEN PARTZELETAN

14. ART. PLAN BEREZIAREN ZEHAZTAPENAK ERAIKUNTZA DUTEN PARTZELEI APLIKATZEA
15. ART. HIRIGINTZA-ERAIKIGARRITASUNAREN KONPUTUA
16. ART. ERAIKUNTZAREN LERROKADURAK
17. ART. SOLAIRU KOPURUA ETA ERAIKUNTZAREN ALTUERA MAXIMOA

2024ko irailaren 25a, asteazkena



- 18. ART. BALDINTZA HIGIENIKO-SANITARIOAK ETA SEGURTASUNEOAK
- 19. ART. ESTALKIAK
- 20. ART. ERAIKUNTZAREN ERAIKUNTZA-KALITATE ESTETIKOKO BALDINTZAK
- 21. ART. PARTZELA ERAIKIGARRIEN HIRIGINTZA-PARAMETROAK

V. KAPITULUA – KUDEAKETA-BALDINTZAK

- 22. ART. EGIKARITZE-ERREGIMENAREN ZEHAZTAPENA

VI. KAPITULUA – URBANIZAZIO-ARAUDIA

- 23. ART. URBANIZAZIOAREN EZAUGARRI GENERIKOAK
- 24. ART. OZTOPO ARKITEKTONIKOAK EZABATZEA
- 25. ART. BIDE-SAREAREN TRAZADURA
- 26. ART. ZOLADURA
- 27. ART. ZERBITZU-SAREEN KANALIZAZIOAK
- 28. ART. ARGITERIA PUBLIKOKO ETA ENERGIA ELEKTRIKOKO SAREA
- 29. ART. SANEAMENDU-SAREA
- 30. ART. UR-HORNIDURAKO SAREA

VII. KAPITULUA – ERAIKUNTZA- ETA ERABILERA-ERREGIMENA ETA PARTZELA ERAIKIGARRIEN ERREGIMENA.

- 31. ART. EK.Z P1 partzela “Udal-kiroldegia”
- 32. ART. EK.Z P2 partzela “Arrantzaleen lonja”
- 33. ART. EK.Z P3 partzela “Ostalaritza-ekipamendua”
- 34. ART. EK.Z P4 partzela “Kontsultategi medikoa”
- 35. ART. EK.Z P5 partzela “Arrantzale-kofradia”
- 36. ART. EK.Z P6 partzela “Kontrapisua”
- 37. ART. EK.Z P7 partzela “Komun publikoak”
- 38. ART. EK.Z P8 partzela “Ontziolako antzinako eraikina”

VIII. KAPITULUA. INGURUMEN-ALDERDIAK

- 39. ART. PLAN BEREZIA EGIKARITZEAN ETA GARATZEAN AINTZAT HARTU BEHARREKO INGURUMEN-AZTERKETA ESTRATEGIKOAREN ALDERDIAK

2024ko irailaren 25a, asteazkena



IX. KAPITULUA.– BIRIBILGUNEA EGITEKO KANPOKO DIKEA ETA DARTSENA ZABALTZEARI LOTUTAKO BALDINTZATZAILEAK

40. ART.– BIRIBILGUNEA EGITEKO KANPOKO DIKEA ETA DARTSENA ZABALTZEARI LOTUTAKO BALDINTZATZAILEAK



I. KAPITULUA – ALDERDI OROKORRAK

1. ART. PLAN BEREZIAREN XEDEA, INDARREAN JARTZEA ETA INDARRALDIA

Plan Bereziaren ordenantza hauek Elantxobeko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean jasotako zehaztapenen babesean idatzi dira. Ordenantza hauen xedea da, dagokien aplikazio-esparruaren barruan eta araudi xehatuaren bidez, lursailen eta eraikinen erabilerari buruzko alderdi guztiak osatzea, baita lurzoruaren hirigintza-erregimenari dagozkion alderdiak ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 69. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Plan Berezi hau indarrean jarriko da behin betiko onartu ondoren, eta indarrean dagoen legerian ezarritako argitaratze-eskakizunak bete ostean, eta indargabetzen ez den bitartean izango da indarrean.

2. ART. PLAN BEREZIAREN OSAGIAK

Honako dokumentu hauek osatzen dute Plan Berezia:

1. MEMORIA dokumentua
2. HIRIGINTZA-ARAUDIA dokumentua
3. EGIKARITZEAREN ANTOLAKETA- ETA KUDEAKETA-JARRAIBIDEEN AZTERKETA dokumentua
4. BIDERAGARRITASUN EKONOMIKO-FINANTZARIOAREN AZTERKETA dokumentua
5. DOKUMENTAZIO GRAFIKOA dokumentua
Informazio-planoak
Antolamendu Xehatuko Planoak

2024ko irailaren 25a, asteazkena



3. ART. OSAGAIEN ARAUZKO BALIOA

Arauzko izaera dute “Hirigintza-araudiko” dokumentu honetan biltzen diren zehaztaperen guztiek, baita ezaugarrien koadroetan eta antolamendu-planoetan bildutakoek ere. Araudi honetan biltzen diren zehaztaperenak aplikatu beharko zaizkie, halaber, esparruaren barruan egiten diren obra guztiei, baldin eta urbanizazioarekin, zerbitzuen ezarpenarekin edo portuko eraikuntzak eta azpiegiturak (dikeak, kaiak, pantalanak, eta abar) gauzatzearekin lotzen badira.

4. ART. ZEHAZTAPENEN HIERARKIZAZIOA

Dokumentazio grafikoaren eta idatziaren artean kontraesanak badaude, Araudian, Antolamendu Planoetan, Azaleren eta Aprobetxamenduen Ezaugarrien Koadroetan eta Memorian bildutako zehaztaperenak, ordena horretan, izango dira baliozkoak eta aplikatzekoak.

Hirigintza-informazioaren dokumentazio idatziak eta grafikoak ez du arauzko baliorik, eta ezin izango du inoiz justifikatu antolamenduan zehaztutakoaren aurkako interpretaziorik.

Eskala desberdinetan egindako arauzko izaera duten planoen artean hirigintza-zehaztaperen jakin baten inguruko desadostasunak hautematen badira, eskala txikienean egindako planoetan ezarritakoa nagusituko da, salbu desadostasuna azken horien edukietan egindako ageriko akats material baten ondoriozkoa bada.

Arlo horretako inguruabarren bat gertatzen bada, aplikatzekoa izango da, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 7. artikuluan ezarritako *hirigintza-antolamenduaren koherentzia-printzipioa*.



II. KAPITULUA – ZONIFIKAZIOA ETA ERABILERA XEHATUAK

5. ART. KALIFIKAZIO GLOBALAREN DEFINIZIOA

Plan Bereziak ezarritako antolamendu xehatuak sei zona korrelatibotan banatzen du Plan Bereziaren mugaketaren barruan sartzen den lurraldea, eta zona horietako bakoitzak Planaren barruan betetzen duen erabilera globala, funtzioa edo edukia du.

Hauek dira Plan Bereziak mugatzen eta definitzen dituen sei zonak:

- .- Itsasoko sarbide-zona – ur-lamina.
- .- Lehorreko sarbide-zona – ibilgailuen eta oinezkoen bideak
- .- Ekipamendu-erabilerarako eta portu-zerbitzuetarako zona
- .- Portuko zerbitzu- eta azpiegitura-zona
- .- Hiri-azpiegituren zona
- .- Espazio libreen zona

6. ART. KALIFIKAZIO XEHATUAREN DEFINIZIOA

Plan Bereziak, sei zona horien barruan —eta horietakoren batean barnean hartzen diren esparru jakin batzuen eduki, izaera edo erabilera espezifikoki erreparatuta—, azpizonen kategorizazio xehatua ezartzen du, hirigintza-erregulazioari dagozkion ondorioetarako. Kategorizazio xehatu hori XX. antolamendu-planoan irudikatzen da eta ondoren zerrendatzen da.

- .- **IS.Z zona.- ITSASOKO SARBIDE-ZONA – UR-LAMINA.**

Zona honetan biltzen da Plan Bereziaren barnean hartutako ur-lamina. Horren barruan, azpizona hauek bereizten dira:

- IS.Z.1 Azpizona litorala
- IS.Z.2 Portuondoko azpizona
- IS.Z.3 Atrakatze- eta ainguratze-azpizona

2024ko irailaren 25a, asteazkena



.- LS.Z zona - LEHORREKO SARBIDE-ZONA – IBILGAILUEN ETA OINEZKOEN BIDEAK

Zona honek barnean hartzen ditu esparruaren barruan dauden eraikuntza, portu-zerbitzu eta azpiegitura guztiei ibilgailuen eta oinezkoen irisgarritasuna ematera zuzendutako Plan Bereziaren zati guztiak. Kategoria horretatik baztertuta daude kaien eta dikeen goialdean gaitutako oinezkoen ibilbideak, portuko zerbitzu- eta azpiegitura-zonari dagokion kategoriaren barruan baitaude elementu horiek guztiak. Azpizona hauek hartzen ditu barnean:

LS.Z.1 Ibilgailuen bide-zona

LS.Z.2 Oinezkoen bide-zona, ibilgailuentzako sarbide murriztua duena

LS.Z.3 Oinezkoen zona

.- EK.Z Zona.- EKIPAMENDU-ERABILERARAKO ETA PORTU-ZERBITZUETARAKO ZONA

Zona honetan biltzen dira portuaren esparruaren barruan, erriberako kaian zehar, gaur egun dauden eraikuntza guztiak, askotariko erabilera- edo titulartasun-erregimenekoak. Horiek udal-esparruko ekipamendu-zerbitzuak egiten dituzte, edota portuaren berezko jarduerarekin lotutako zerbitzuak.

Horien erregulazio xehatuaren ondorioetarako, kategoria horren barruan zortzi partzela korrelatibo mugatu dira, guztira dauden zortzi eraikinekin batera, honako izen hauekin:

EK.Z. P1	“Udal-kiroldegia”
EK.Z. P2	“Arrantzaleen lonja”
EK.Z. P3	“Ostalaritza-ekipamendua”
EK.Z. P4	“Kontsultategi medikoa”
EK.Z. P5	“Arrantzale-kofradia”
EK.Z. P6	“Kontrapisua”
EK.Z. P7	“Komun publikoak”
EK.Z. P8	“Antzinako ontziola eraikina”

2024ko irailaren 25a, asteazkena

**.- PA.Z zona.- PORTUKO ZERBITZU- ETA AZPIEGITURA-ZONA**

Zona honek barruan biltzen ditu portu-barrutian dauden dikeak edo kaiak —ur-lamina mugatzen dutenak—, lehorreratzeko arrapala, ontziak altxatzeko garabia dagoen dartsena eta energia disipatzeko zona. Eginkizun funtzional horren arabera, azpikategoria korrelatibo hauek bereizten dira:

PA.Z.1 Dike-zona

PA.Z.2 Ontziak lehorreratzeko arrapala eta mantentzeko dartsenako zona.

PA.Z.3 Energia disipatzeko zona.

.- HA.Z zona.- HIRI-AZPIEGITUREN ZONA

Zona honetan barnean hartzen da HUA (Hondakin Uren Araztegia) eta hiri-hondakinen gaikako bilketarako eremua.

Bi azpiegitura horiek alde batera utzita, lurzoru-kategoria horretan biltzen dira Plan Bereziaren esparruaren barruan dauden hornidurako, saneamenduko, argiteria publikoko, energia elektrikoko eta telefoniako hiri-zerbitzuen sareak. Horiek lurpeko kanalizazioaren bidez igarotzen dira bideen azpitik edo dike edo kaien azpitik, eta ez daude espresuki grafiatuta zonifikazioaren eta erabilera xehatuen planoetan. Horiek informazio-planoetan baino ez daude jasota.

HA.Z.1 Hondakin-uren araztegia

HA.Z.2 Hiri-hondakinak gaika biltzeko zentroa

EL.Z zona.- ESPAZIO LIBREEN ETA HONDARREKO BERDEGUNEEN ZONA

Zona honetan barnean hartzen dira, batetik, itsastarren gizarte-lokal zaharraren ondoan dagoen espazioa —portu-barrutiaren barruan haurrentzako jolas- eta aisia-eremu bat eratuko da eta hori izango du erabilera bereizgarria— eta, bestetik, parterreen hondarreko berdeguneak eta antzeko beste zona batzuk. Honako azpizona hauek bereizten dira:

EL.Z.1 Haur-jolasen zona

EL.Z.2 Hondarreko berdeguneak



III. KAPITULUA – ERABILERA-BALDINTZAK

7. ART. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO PORTUEI ETA ITSAS GARRAIOARI BURUZKO EKAINAREN 28KO 2/2018 LEGEAN PORTUETARAKO ZEHAZTUTAKO ERABILERA OROKORRAK

2/2018 Legearen 12. Artikuluaren arabera portuko espazio eta erabileren mugaketak portuko guneetarako aurreikusita dauden erabilerak hartuko ditu barne, zerbitzugunean aurreikusitako jardueren arabera, eta portuko erabilera hauetarako:

a) Portuetako merkataritza-erabilerak: soil-soilik edo nagusiki, salgaiak garraiatzeko erabilitako ontzietatik edo itsasontzietatik kargatzeko, deskargatzeko, manipulatzeko eta eraldatzeko jarduera profesionalera bideratutakoak dira, eta ontzi edo itsasontzi horien oinarri izatera bideratutakoak ere, eta atrakatzeko, ainguratzeko, egoteko, hornitzeko eta mantentzeko beharrezko zerbitzu batzuk edo guztiak eskaintzen dituzte.

b) Arrantza-erabilerak: soil-soilik edo nagusiki, ontzietatik eta itsasontzietatik egiten den arrantza profesionalari lotutako jarduerak dira, eta ontzi edo itsasontzi horien oinarri izatera bideratutakoak ere, eta atrakatzeko, ainguratzeko, egoteko, hornitzeko eta mantentzeko beharrezko zerbitzu batzuk edo guztiak eskaintzen dituzte, baita arrantza jasotzera bideratutakoak ere, manipulatuz edo saltzeko.

c) Itsas aisialdiko erabilerak: soilik edo nagusiki kirol- edo aisialdi-ontziek edo horiekin zerikusia duten edo beroriei laguntzeko jarduerak edo ontziek erabiltzeko direnak.

d) Erkidegoko erabilera publikoak: Euskal Autonomia Erkidegoaren titulartasunekoak diren zerbitzuak ematen dituzten jarduerak dira.

e) Industria- eta merkataritza-erabilerak: industria edo merkataritza izaera duten jarduera guztiak dira, portuko zerbitzuak izan gabe ere, zerbitzugunean egin daitezkeenak eta aurreko apartatuetan aipatutako jardueretako bat ere ez direnak.

f) Erabilera mistoak: aurreko apartatuetan aipatzen diren portuko guneetako berezko erabileretan aniztasuna dutenak, erabilera horietako batek lehentasunik ez badu ere.



8. ART. ITSASOKO SARBIDE-ZONAN – UR LAMINAN (IS.Z) BAIMENDUTAKO ERABILERAK

IS.Z.1 Itsasoko sarbide-zonan – Ur Laminan Plan Bereziko ur-laminari dagozkion eremu guztiak hartzen ditu, eta horren barruan litorala, portuondo eta atrakatzeko- eta ainguratze-azpizonak bereizten dira.

Horietan guztietan, ontzien zirkulazioa baimentzen da, sektoreko legediaren eta arlo horretan aplikatzekoa den araudiaren arabera.

IS.Z.2 portuondo azpizonan, gainera, igarobidean dauden ontzien noizbehinkako ainguratzea baimentzen da, Portu Agintaritzak horretarako ezartzen dituen mugen barruan.

Araudi honen 7. artikuluan adierazitako sailkapenaren arabera, honako hauek dira IS.Z.1 eta IS.Z.2 guneean aurreikusitako erabilerak:

- a) Portuetako merkataritza-erabilerak
- b) Arrantza-erabilerak
- c) Itsas aisialdiko erabilerak

IS.Z.3 atrakatzeko- eta ainguratze-azpizonan ontzien egonaldia baimentzen da, bai pantalanetan atrakatzeko sistemaren bidez, bai buietan amarratzeko ainguraketaren bidez, Portu Agintaritzak horretarako ezarritako araudiaren arabera, eta igarobidean dauden ontzien atrakatzeko eta ainguratze ere baimentzen da.

9. ART. LEHORREKO SARBIDE-ZONAN – IBILGAILUEN ETA OINEZKOEN BIDEETAN (LS.Z) BAIMENDUTAKO ERABILERAK

Zona horretan sartzen dira esparruaren barruan kokatutako eraikuntza, portu-zerbitzu eta azpiegitura guztietarako irisgarritasuna —ibilgailuz eta oinez— bermatzera zuzentzen diren Plan Bereziaren zatiak. Honako azpizona hauek bereizten dira: ibilgailuen bideak, ibilgailuentzako sarbide murriztua duten oinezkoen bideak eta oinezkoen bideak.

Ibilgailuen bideen azpizona, LS.Z.1, ibilgailuen irisgarritasuna bermatzera eta antolatzea zuzentzen da, zehazki Komunikazio Sistema Orokorretik portuaren esparrurako irisgarritasuna antolatzea. Azpizona horretan, ibilgailu motordunen

2024ko irailaren 25a, asteazkena



zirkulazioa baimentzen da, baita ibilgailuak espresuki seinaleztatutako zonetan aparkatzea ere.

Ibilgailuentzako sarbide murriztua duen oinezkoen bideen azpizona (LS.Z.2) dagokio erriberako kaian zehar dauden eraikuntzen eta haren ertzeko lerroaren artean dagoen egungo bide-sarearen zatiari. Zona horretan lehentasuna izango du oinezkoen erabilerak, baina ibilgailuen zirkulazio murriztua baimentzen da, portuko ekipamendu eta zerbitzuetara zuzendutako eraikuntzei irisgarritasuna emateko, baita hiri-azpiegiturak mantentzeko zerbitzuei (araztegiari) eta portuko bertako zerbitzuei (lehorreratzeko arrapalari) irisgarritasuna emateko ere. Hori dela eta, ibilgailu motordunen trafikoa soilik baimenduko da aurreko paragrafoetan espresuki baimendutako zereginetarako eta beti ezar daitezkeen ordutegien barruan. Era berean, baimentzen da ibilgailuak aldi baterako aparkatzea, portuko zerbitzuei eta ekipamenduei zerbitzu egiteko.

Araudi honen 7. artikuluan adierazitako sailkapenaren arabera, honako hauek dira IS.Z.2 eta LS.Z.2 guneeetan aurreikusitako erabilerak:

- a) Portuetako merkataritza-erabilerak
- b) Arrantza-erabilerak
- c) Itsas aisialdiko erabilerak

Oinezkoen bideen azpizonak (LS.Z.3) biltzen ditu oinezkoen pasaera ahalbidetzera soilik zuzendutako espazioak. Bertan, espresuki debekatuta dago ibilgailu motordunen zirkulazioa eta horien aparkamendua.

10. ART. EKIPAMENDU-ERABILERARAKO ETA PORTU-ZERBITZUETARAKO ZONAN (EK.Z) BAIMENDUTAKO ERABILERAK

Zona honetan biltzen dira erriberako kaian zehar gaur egun dauden ia eraikuntza guztiak, askotariko erabilera- edo titulartasun-erregimeneakoak. Horiek udal-esparruko edo esparru pribatuko ekipamendu-zerbitzuak egiten dituzte, edota portuaren berezko jarduerarekin lotutako zerbitzuak.

Oro har, hirigintza-kalifikazio honen barruan sartzen diren eraikuntzetan baimendutako erabilerak lotzen dira kategoria guztietako ekipamenduekin, portuko zerbitzuekin eta hirugarren sektoreko erabilerekin. Edonola ere, partzela eraiki bakoitzaren erabilera espezifikoetako erregimena jasotzen da honako hirigintza-araudi honetan barnean hartzen den horietako bakoitzaren hirigintza-fitxetan.



11. ART. PORTUKO ZERBITZU- ETA AZPIEGITURA-ZONAN (PA.Z) BAIMENDUTAKO ERABILERAK

Zona honek barruan biltzen ditu portu-barrutian dauden dikeak edo kaiak —ur-lamina mugatzen dutenak—, lehorreratzeko arrapala, ontziak altxatzeko garabia dagoen dartsena eta energia disipatzeko zona.

Dikeen azpizonan, PA.Z.1, baimentzen dira portua babestera zuzendutako eta oinezkoak eta ibilgailuak atrakatuta edo ainguratuta dauden ontzietara iristera zuzendutako portu-azpiegitura horiekin lotzen diren erabilera bereizgarriak (ibilgailuen irisgarritasunaren erabilera izaera mugatua eta noizbehinkakoa du). Zona horretan debekatuta dago eraikitzea, eta soilik baimenduko dira bidezko legeria sektorialak baimentzen dituen elementu osagarriak, baita zerbitzu-sareak bideratzeko kanalizazioak edo galeriak lurpean instalatzea ere. Antzinako iparraldeko dikean eta goiko terrazara iristeko arrapalen azpian sortzen diren lokaletan, itsas jarduerarekin eta portu-jarduerarekin lotzen diren tresnak eta lanabesak biltegitratzeko edo gordetzeko sotoak gaitu ahal izango dira.

Ontziak lehorreratzeko arrapalaren eta mantentzeko dartsenaren azpizonan, PA.Z.2, baimenduta daude ontziak konpontzearekin eta mantentzearekin lotzen diren erabilera, baita ontziak bertan egotea ere, Portu Agintaritzak ondorio horretarako ezartzen duen erregulazioaren arabera. Zona horretan debekatuta dago eraikitzea, eta soilik baimenduko dira bidezko legeria sektorialak baimentzen dituen instalazioak edo elementu osagarriak, baita zerbitzu-sareak bideratzeko kanalizazioak edo galeriak lurpean instalatzea ere.

Araudi honen 7. artikuluan adierazitako sailkapenaren arabera, honako hauek dira PA.Z1.1 eta PA.Z2.2 gunetan aurreikusitako erabilera

- a) Portuetako merkataritza-erabilera
- b) Arrantza-erabilera
- c) Itsas aisialdiko erabilera
- f) Erabilera mistoak

Energia disipatzeko azpizonan, PA.Z.3, debekatuta daude aisialdi- edo jolas-erabilera.

2024ko irailaren 25a, asteazkena



Portuko zerbitzu- eta azpiegitura-zona honetan baimendutako erabileren barruan sartzan dira energia berriztagarrietatik datorren energia (itsas haizearen energiatik, olatuen energiatik edo itsasoaren energiatik datorren energia) baliatzearekin eta ekoiztearekin lotzen diren erabilerak.

12. ART. HIRI-AZPIEGITURETAKO ZONAN (HA.Z) BAIMENDUTAKO ERABILERA

Zona honetan barnean hartzen da HUA (Hondakin Uren Araztegia) eta hiri-hondakinen gaikako bilketarako eremua.

*HUA*ri dagokion azpizonan, HA.Z.1, eta azpiegitura horren gainean dagoen espazioan, baimenduta daude *Ontziak lehorreratzeko arrapalaren eta mantentzeko dartsenaren* azpizonan baimendutako erabilerak, betiere azpiegitura horren ezaugarri teknikoen eta eraikuntzako ondotioz ezar daitezkeen mugak alde batera utzi gabe.

Araudi honen 7. artikuluan adierazitako sailkapenaren arabera, honako hauek dira HA.Z1.1 eta HA.Z2.2 guneetan aurreikusitako erabilerak:

- a) Portuetako merkataritza-erabilerak
- b) Arrantza-erabilerak

Hiri-hondakinen gaikako bilketaren azpizonan, HA.Z.2, egiteko horretarako instalazioak kokatu ahal izango dira, eta debekatuta dago ibilgailuak aparkatzea.

13. ART. ESPAZIO LIBREEN ETA HONDARREKO BERDEGUNEEN ZONAN BAIMENDUTAKO ERABILERA

Espazio libreen azpizonan, EL.Z.1, haurrentzako aisialdi- eta jolas-eremu bati dagokion erabilera baimentzen da.

Hondarreko berdeguneen azpizonan, EL.Z.2, lorategi-espazioen berezko erabilera baimentzen da, eta debekatuta dago edonolako eraikuntza.



IV. KAPITULUA – HIRIGINTZA-APROBETXAMENDUAREN ERREGULAZIOA, ERAIKUNTZA DUTEN PARTZELETAN

14. ART. PLAN BEREZIAREN ZEHAZTAPENAK ERAIKUNTZA DUTEN PARTZELEI APLIKATZEA

Ekipamendu-erabilerarako eta portu-zerbitzuetarako zonan barnean hartzen diren partzeletan horietako bakoitzerako ezarritako hirigintza-erregimenari jarraituko zaio, Hirigintza Araudi honetan jasotzen den moduan.

15. ART. HIRIGINTZA-ERAIKIGARRITASUNAREN KONPUTUA

Partzela bakoitzean baimendutako eraikigarritasun maximoaren konputuaren ondorioetarako, hirigintza-eraikigarritasuna da beheko solairuan eta goiko solairuetan eraikitako azalera.

16. ART. ERAIKUNTZAREN LERROKADURAK

Lerrokaduren eta sestren planoan grafikoki irudikatzen direnak dira, eta bat datoz, kasu guztietan, partzela eraikigarrietako bakoitzean gaur egun dauden eraikuntzen ingurutzailerekin.

17. ART. SOLAIRU KOPURUA ETA ERAIKUNTZAREN ALTUERA MAXIMOA

Eraikin bakoitzaren solairu kopurua horietako bakoitzarentzat hirigintza-erregimenean adierazitako kopurua izango da.

Altuera maximoa ere modu adierazgarrian ezartzen da hirigintza-erregimen horretan, eta erreferentzia gisa adierazten da espazio urbanizatutik hegalararen beheko kotaraionoko tartea dela. Edonola ere, hegalarainoko altuera hori gaur egun eraikuntza bakoitzean dagoen altuera izango da, EK.Z.P1 partzelan kokatutako eraikuntzaren altuera salbuetsita —eraikuntza horren hirigintza-eraikigarritasuna gehitzea baimenduko da—.

2024ko irailaren 25a, asteazkena



18. ART. BALDINTZA HIGIENIKO-SANITARIOAK ETA SEGURTASUNEOAK

Plan Berezi honen aplikazio-esparruan barnean hartzen diren eraikuntza garatu guztiek eta garatu beharreko eraikuntza guztiek bete beharko dituzte indarrean dagoen legerian ezartzen diren elementu, zerbitzu eta baldintza higieniko-sanitarioak, bizigarritasunekoak, funtzionaltasunekoak eta segurtasunekoak.

19. ART. ESTALKIAK

Estalkiek egungo konfigurazioari eutsiko diote, isurki triangeluarren antolamenduari eta kopuruari dagokionez. Erreforma-lanak egin behar izanez gero, isurki triangeluarren malda % 30 eta % 40 artekoa izango da, eta, estalkiaren ingurutzailaz kanpo, ez da bigarren lerrokadura bat sor dezakeen inolako atzeraemangunerik baimenduko.

20. ART. ERAIKUNTZAREN ERAIKUNTZA-KALITATE ESTETIKOKO BALDINTZAK

Ekipamendu-erabilerarako eta portu-zerbitzuetarako duen partzela bakoitzerako ezarritako hirigintza-erregimenean xedatutakoaren indarrez, gaur egungo eraikuntzetan egin daitezkeen eraikuntza-jarduketa guztiak egokitu beharko zaizkie Elantxobeko Plan Orokorraren Eraikuntza Ordenantzan jasotako baldintzei.

Eraikuntzen gainean egin beharreko jarduketak material homologatuz egin beharko dira, eta haien xedea behar bezala betetzeko beharrezkoa den kalitatea izango dute. Horrez gain, akabera-baldintza egokiak izan beharko dituzte elementu guztietan, kanpokoetan zein barnekoetan.

Kalitate paisajistiko eta arkitektoniko egokia ziurtatzeko helburuarekin, fatxaden eta estalkien paramentuen gainazaleko akaberek eta erremateek ingurunearekin harmonia mantenduko dute, salbuetsita ikoniko eta adierazgarri gisa eratzten diren elementuak.

21. ART. PARTZELA ERAIKIGARRIEN HIRIGINTZA-PARAMETROAK

Plan Bereziaren esparruaren barruan mugatutako partzela eraikigarrien erabilera-erregimenari eta hirigintza-parametroei buruzko zehaztapenak jasotzen dira honako Hirigintza Araudi honetako VII. Kapituluan zerrendatzen diren hirigintza-fitxetan.

2024ko irailaren 25a, asteazkena



Hauak dira Plan Bereziak zortzi partzela eraikigarrietarako aurreikusten dituen eraikigarritasunak:

	Izena	Beh.	sol.	azalera
Eraikigarritasuna				
EK.Z. P1	"Udal-kiroldegia"	253 m ²		751 m ²
EK.Z. P2	"Arrantzaleen lonja"	183 m ²		366 m ²
EK.Z. P3	"Ostalaritza-ekipamendua"	63 m ²		63 m ²
EK.Z. P4	"Kontsultategi medikoa"	157 m ²		314 m ²
EK.Z. P5	"Arrantzale-kofradia"	173 m ²		346 m ²
EK.Z. P6	"Kontrapisua"	45 m ²		62 m ²
EK.Z. P7	"Komun publikoak"	10 m ²		10 m ²
EK.Z. P8	"Antzinako ontziola eraikina"	149 m ²		298 m ²
	GUZTIRA	1.033 m²		2.210 m²



V. KAPITULUA – KUDEAKETA-BALDINTZAK

22. ART. EGIKARITZE-ERREGIMENAREN ZEHAZTAPENA

Plan Bereziaren mugaketan barnean hartzen den eremua titulartasun publikoko esparru bat da, eta horren garapena Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak kudeatuko du.

Jarduketa-esparruak titulartasun pribatuko lurzoruren bat hartzen badu, ulertuko da Plan Bereziaren onarpenak onura publikoko deklarazioa ekarriko duela, baita, beharrezkoa izanez gero, lursailak desjabetze bidez okupatu beharra ere, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 88. artikuluan xedatzen denaren arabera.



VI. KAPITULUA – URBANIZAZIO-ARAUDIA

23. ART. URBANIZAZIOAREN EZAUGARRI GENERIKOAK

Plan Berezi honetan aurreikusten diren jarduketa guztiak, edo batzuk, aintzat hartzen dituen urbanizazio-proiektua —edo edozein eraikuntza-proiektu— idatziko da, Elantxobeko Plan Orokorraren Urbanizazio Ordenantzaren arabera, eta Hirigintza Araudi honetan jasotako alderdiekin osatuko da. Bien artean desadostasunak badaude, Plan Orokorrak ondorio horretarako ezartzen duena nagusituko da.

Oro har, urbanizazio-obrak diseinatzean, egikaritzean eta mantentzean, ingurumen-jasangarritasunerako lagungarriak diren soluzio teknikoak eta eraikuntzakoak hartuko dira barnean. Ondorio horietarako, erreferentziatzat hartuko da IHOBek landutako Modu Jasangarrian Urbanizatzeko Gida.

24. ART. OZTOPO ARKITEKTONIKOAK EZABATZEA

Plan Bereziaren garapenean idazten diren Urbanizazio Proiektuek edo Eraikuntza Proiektuek, oro har, xedapen hauetan ezarritakora egokitu beharko dituzte haien zehaztaperak: irisgarritasuna sustatzeko Eusko Legebiltzarreko 20/1997 Legeak ezarritakora eta hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen Eusko Legebiltzarreko 68/2000 Dekretuak ezarritakora.

25. ART. BIDE-SAREAREN TRAZADURA

Lehorreko sarbide-zona – Ibilgailuen eta oinezkoen bideak (LS.Z) gisa kalifikatutako zonan egiten diren jarduketak Plan Bereziaren dokumentazio grafikoan ezarritakora eta hirigintza-araudi honetan ezarritakora egokituko dira, trazadurari eta erabilera-erregimenari dagokionez hurrenez hurren. BI-2237 errepidetik porturako sarbide-gunean aurreikusten den glorieta egikaritzean, eraginkortasunez bereiziko dira ibilgailuen trafikoa eta inguratzen duten oinezkoen ibilbideak.

BI-2237 foru errepidearen (BI-2237 errepidearen amaierako puntuan, BI-2237 errepidearen amaieran, portura sartzeko biribilgunea, foru saretik kanpo dagoena) inguruan egitekoak diren jarduketetan, galtzadaren kanpoko ertzetik neurtutako



HEMEZORTZI (18) METROKO distantziara dagoen eraikuntza lerroa errespetatuko da. Lerro honetatik galtzadaraino debekatuta dago edozelako eraikuntza-lanak egitea, sestraren gainean zein sestraren azpian.

Eraikuntza-lerroaren aurrean lehendik dauden eraikinetan eta instalazioetan, higiene-, kontserbazio- eta apaindura-arrazoiengatik konponketa-obrak baino ezin izango dira egin, ondare urbanizatua eta eraikia birgaitzeko jarduera babestuei buruzko erakunde-araudian xedatutakoaren arabera.

Urbanizazio Proiektuan aurreikusiko dira ibilgailuen trafikoa eta aparkamendua mugatzeko beharrezkoak diren neurriak. Plan Bereziak ezartzen du zer muga bete beharko den oinezkoen eta ibilgailuen bideetara zuzendutako espazioen barruan mugatutako azpizona bakoitzean. Era berean, Urbanizazio Proiektuak portu-esparruaren barruan ibilgailuen trafikorekin abiadura eraginkortasunez mugatzeko beharrezkoak diren neurriak aurreikusi beharko ditu.

26. ART. ZOLADURA

Ibilgailuen bideetara zuzendutako diren zonetako zoladurak malguak edo zurrinak izan daitezke.

Oinezkoen bideetara soilik zuzendutako diren zonetako zoladurek eta ibilgailuen erabilera mugatua izango duten beste zonetako zoladurek hormigoizko zola izango dute, eta zolaketak materialak ez-labaintzekoak izango dira eta Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak definitutako ereduaren arabekoak —hiri-ingurunearekin bat etorriko dira—. % 1 eta % 2 arteko zeharkako pendizak izango dituzte euri-urak husteko, eta behar besteko edukiera izango duten estolda-zuloak ere izango dituzte, 20 metroko gehieneko distantzian (estolda zulo bat 400 m²-ko).

27. ART. ZERBITZU-SAREEN KANALIZAZIOAK

Hiri-zerbitzuetako sareen kanalizazio eta eroanbide guztiak lurpean bideratuko dira.

Urbanizazio Proiektuaren bidez aurreikus daitezkeen beste zerbitzu-sare batzuk ezarriko badira, horiek taldekatuta garatuko dira zoladuraren azpian antolatutako zerbitzu-galerien bitartez. Zerbitzu-sareen konfigurazioan eta dimentsionamenduan aintzat hartu beharko dira hiri-zerbitzuetako konpainia hornitzaileek finkatzen dituzten baldintzak.



28. ART. ARGITERIA PUBLIKOKO ETA ENERGIA ELEKTRIKOKO SAREA

Linea, hargune, koadro eta instalazio elektriko guztiek bete beharko dituzte indarrean dauden erregelamendu ofizialak eta konpainia emakidadunen arauak.

Argiteria-sarearen diseinuak eta dimentsioek indarrean dauden legezko agindu guztiak errespetatuko dituzte, baita Plan Orokorraren Urbanizazio Ordenantzan ezarritako baldintzak ere.

Edonola ere, argiteria publikoaren instalazioak honako argi-parametro hauek bete beharko ditu gutxienez:

Argiztapen maila minimoak:

Ibilgailuen trafikoa baimentzen den eremuetan 25 lux.

Soilik oinezkoen ibilbideetarako eremuetan 20 lux.

Eska daitekeen uniformetasun-maila minimoa:

Bide/espazio erabilera	Batez b. erabilera	Muturreko uniformetasuna
Ibilgailuak	0,65	0,35
Oinezkoak	0,50	0,25

29. ART. SANEAMENDU-SAREA

Saneamendu-sarea bereizlea izango da.

Erabiliko diren materialek herrien saneamendu proiektua idazteko arauak bete beharko dituzte, baita Busturialdeko Ur Partzuergoak ezarritako baldintzak ere.

Itsasertzean kokatutako hondakin-uren araztegia eta saneamendu-sareak portu-kudeaketa autonomikorako eskualdatutako Estatuaren itsas-lehorreko jabari publikoaren barnean daude, eta Kostaldeei buruzko Legearen 44.6 artikuluan adierazitako debekua urratzen dute. Izan ere, artikulua horrek ez du baimentzen ur-araztegiak eta kolektoreak kostarekiko paralelo jartzea, itsasertzaren barnean eta itsasertzetik kanpoko lehen 20 metroetan.

2024ko irailaren 25a, asteazkena



Hondakin-uren araztegiari dagokionez, honako hauek ere hartuko ditu erreferentziatzat: 1994ko ekainaren 17ko Agindua Eusko Jaurlaritzako Herri Lan sailburuarena, lurzorua okupatzeko administrazio-emakida ematen duena, eta haren hurrenez hurreneko 2014ko eta 2019ko luzapenen emakidak, eta 2016ko apirilaren 29ko Ebazpena, Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiarena, hondakin-uren araztegiko ur araztuak itsasora isurtzeko baimena ematen duena.

Nolanahi ere, azpiegiturak itsasertzetik kanpo eta lehen 20 metroetatik lur barnera sartzeko beharra berresten da, behin lurzorua okupatzeko administrazio-emakidaren azken luzapena amaitu ondoren.

30. ART. UR-HORNIDURAKO SAREA

Ur-hornidurako sareak udal-sarea baliatuko du ura hartzeko, eta honako aurreikuspen hauek betetzeko diseinatuta egongo da, indarrean dagoen kasuan kasuko araudiari jarraituz:

- Edateko uraren hornikuntza.
- Berdeguneen ureztapena.
- Suteen aurkako babesa (suteetako ur-harguneak).

2024ko irailaren 25a, asteazkena



VII. KAPITULUA – ERAIKUNTZA- ETA ERABILERA-ERREGIMENA ETA PARTZELA ERAIKIGARRIEN ERREGIMENA.

31. ART. EK.Z P1 partzela “Udal-kiroldegia”

Azalera: 253 m²

Kalifikazioa: Ekipamendu-erabilerarako eta portu-zerbitzuetarako zona

Antolamendu- eta eraikigarritasun-baldintzak:

Beheko solairuko okupazio maximoa: 253 m²

Eraikigarritasun fisikoa: 751 m²

Solairu kopurua: B.Sol. + 2

Lerrokadurak: Dagoen eraikinaren egungo lerrokadurak eraikuntzaren lerrokadura maximo gisa konfiguratzen dira.

Hegalaren altuera: 10,50 m

Erabilera-baldintzak: Erabilera bereizgarria: .- Kirol-ekipamendua.

Erabilera bateragarriak: .- Portu-erabileraren berezko eskakizunekin lotzen direnak, dagokion sektoreko legeriaren arabera.

Araudi honen 7. artikuluan adierazitako sailkapenaren arabera, honako hauek dira EK.Z P1 partzelan aurreikusitako erabilerak:

- c) Itsas aisialdiko erabilerak
- d) Erabilera komunitario publikoak
- e) Industria- eta merkataritza-erabilerak.

2024ko irailaren 25a, asteazkena

**32. ART. EK.Z. P2 partzela "Arrantzaleen lonja"**

Azalera: 183 m²

Kalifikazioa: Ekipamendu-erabilerarako eta portu-zerbitzuetarako zona

Antolamendu- eta eraikigarritasun-baldintzak:

Beheko solairuko okupazio maximoa: 183 m²

Eraikigarritasun fisikoa: 366 m²

Solairu kopurua: B.Sol. + 1

Lerrokadurak: Dagoen eraikinaren egungo lerrokadurak eraikuntzaren lerrokadura maximo gisa konfiguratzeko dira.

Hegalaren altuera: 6 m

Erabilera-baldintzak: Erabilera bereizgarria: .- Komunitate-ekipamendua.

Erabilera bateragarriak: .- Portu-erabileraren berezko eskakizunekin lotzen direnak, dagokion sektoreko legeriaren arabera.

Araudi honen 7. artikuluan adierazitako sailkapenaren arabera, honako hauek dira EK.Z. P2 partzelan aurreikusitako erabilerak:

- b) Arrantza-erabilera
- d) Erabilera komunitario publikoak
- e) Industria- eta merkataritza-erabilerak:



33. ART. EK.Z. P3 partzela "Ostalaritza-ekipamendua"

Azalera: 63 m²

Kalifikazioa: Ekipamendu-erabilerarako eta portu-zerbitzuetarako zona
Antolamendu- eta eraikigarritasun-baldintzak:

Beheko solairuko okupazio maximoa: 63 m²

Eraikigarritasun fisikoa: 63 m²

Solairu kopurua: B.Sol.

Lerrokadurak: Dagoen eraikinaren egungo lerrokadurak
eraikuntzaren lerrokadura maximo gisa
konfiguratzeko dira.

Hegalaren altuera: 3 m

Erabilera-baldintzak: Erabilera bereizgarria: .- Hirugarren sektorea – ostalaritza.

Berariaz debekatzen da ostatatzeari lotutako jarduerak egitea, nahiz eta ostatatze hori noizbehinkakoa edo ezustekoa izan, Kostaldeei buruzko araudiak berariaz debekatutako erabilera baita.

Erabilera bateragarriak: .- Portu-erabileraren berezko eskakizunekin lotzen direnak, dagokion sektoreko legeriaren arabera.

Araudi honen 7. artikuluan adierazitako sailkapenaren arabera, honako hauek dira EK.Z. P3 partzelan aurreikusitako erabilerak:

e) Industria- eta merkataritza-erabilerak:

2024ko irailaren 25a, asteazkena



34. ART. EK.Z. P4 partzela "Kontsultategi medikoa"

Azalera: 157 m²

Kalifikazioa: Ekipamendu-erabilerarako eta portu-zerbitzuetarako zona

Antolamendu- eta eraikigarritasun-baldintzak:

Beheko solairuko okupazio maximoa: 157 m²

Eraikigarritasun fisikoa: 314 m²

Solairu kopurua: B.Sol. + 1

Lerrokadurak: Dagoen eraikinaren egungo lerrokadurak eraikuntzaren lerrokadura maximo gisa konfiguratzen dira.

Hegalaren altuera: 6 m

Erabilera-baldintzak: Erabilera bereizgarria: .- Osasun-ekipamendu asistentziala

Erabilera bateragarriak: .- Portu-erabileraren berezko eskakizunekin lotzen direnak, dagokion sektoreko legeriaren arabera.

Araudi honen 7. artikuluan adierazitako sailkapenaren arabera, honako hauek dira EK.Z. P4 partzelan aurreikusitako erabilerak:

d) Erabilera komunitario publikoak

e) Industria- eta merkataritza-erabilerak:

2024ko irailaren 25a, asteazkena

35. ART. EK.Z. P5 partzela "Arrantzale-kofradia"

Azalera: 173 m²

Kalifikazioa: Ekipamendu-erabilerarako eta portu-zerbitzuetarako zona

Antolamendu- eta eraikigarritasun-baldintzak:

Beheko solairuko okupazio maximoa: 173 m²

Eraikigarritasun fisikoa: 346 m²

Solairu kopurua: B.Sol. + 1

Lerrokadurak: Dagoen eraikinaren egungo lerrokadurak eraikuntzaren lerrokadura maximo gisa konfiguratzeko dira.

Hegalaren altuera: 6 m

Erabilera-baldintzak: Erabilera bereizgarria: .- Portu-zerbitzuak.

Erabilera bateragarriak: .- Portu-erabileraren berezko eskakizunekin lotzen direnak, dagokion sektoreko legeriaren arabera.

Araudi honen 7. artikuluan adierazitako sailkapenaren arabera, honako hauek dira EK.Z. P5 partzelan aurreikusitako erabilerak:

d) Erabilera komunitario publikoak

e) Industria- eta merkataritza-erabilerak:

2024ko irailaren 25a, asteazkena

36. ART. EK.Z. P6 partzela "Kontrapisua"Azalera: 45 m²

Kalifikazioa: Ekipamendu-erabilerarako eta portu-zerbitzuetarako zona

*Antolamendu- eta eraikigarritasun-baldintzak:*Beheko solairuko okupazio maximoa: 45 m²Eraikigarritasun fisikoa: 62 m² (45 m² B.S.an eta 18 m² 1. S.an)

Solairu kopurua: B.Sol. + 1

Lerrokadurak: Dagoen eraikinaren egungo lerrokadurak eraikuntzaren lerrokadura maximo gisa konfiguratzeko dira.

Hegalaren altuera: 5 m

Erabilera-baldintzak: Erabilera bereizgarria: .- Portu-zerbitzuak.

Erabilera bateragarriak: .- Portu-erabileraren berezko eskakizunekin lotzen direnak, dagokion sektoreko legeriaren arabera.

Araudi honen 7. artikuluan adierazitako sailkapenaren arabera, honako hauek dira EK.Z. P6 partzelan aurreikusitako erabilerak:

- d) Erabilera komunitario publikoak:
- e) Industria- eta merkataritza-erabilerak:

2024ko irailaren 25a, asteazkena

37. ART. EK.Z. P7 partzela "Komun publikoak"

Azalera: 10 m²

Kalifikazioa: Ekipamendu-erabilerarako eta portu-zerbitzuetarako zona

Antolamendu- eta eraikigarritasun-baldintzak:

Beheko solairuko okupazio maximoa: 10 m²

Eraikigarritasun fisikoa: 10 m²

Solairu kopurua: B.Sol.

Lerrokadurak: Dagoen eraikinaren egungo lerrokadurak eraikuntzaren lerrokadura maximo gisa konfiguratzeko dira.

Hegalaren altuera: 3 m

Erabilera-baldintzak: Erabilera bereizgarria: .- Portu-zerbitzuak.

Erabilera bateragarriak: .- Portu-erabileraren berezko eskakizunekin lotzen direnak, dagokion sektoreko legeriaren arabera.

Araudi honen 7. artikuluan adierazitako sailkapenaren arabera, honako hauek dira EK.Z. P7 partzelan aurreikusitako erabilerak:

d) Erabilera komunitario publikoak:

2024ko irailaren 25a, asteazkena

38. ART. EK.Z. P8 partzela: Antzinako ontziola eraikinaAzalera: 149 m²

Kalifikazioa: Ekipamendu-erabilerarako eta portu-zerbitzuetarako zona.

*Antolamendu- eta eraikigarritasun-baldintzak:*Beheko solairuko okupazio maximoa: 149 m²Eraikigarritasun fisikoa: 298 m²

Solairu-kopurua: Bs + 1

Lerrokadurak: Dagoen eraikinaren egungo lerrokadurak eraikuntzaren lerrokadura maximo gisa konfiguratzeko dira.

Hegalaren altuera: 6 m

Erabilera-baldintzak: Erabilera bereizgarria: Hirugarren sektorea - Ostalaritza

Berariaz debekatzen da ostatatzeari lotutako jarduerak egitea, nahiz eta ostatatze hori noizbehinkakoa edo ezustekoa izan, Kostaldeei buruzko araudiak berariaz debekatutako erabilera baita.

Erabilera bateragarriak: .– Portu-erabileraren berezko eskakizunekin lotzen direnak, dagokion sektoreko legeriaren arabera.

Araudi honen 7. artikuluan adierazitako sailkapenaren arabera, honako hauek dira EK.Z. P8 partzelan aurreikusitako erabilerak:

d) Erabilera komunitario publikoak

e) Industria- eta merkataritza-erabilerak:

2024ko irailaren 25a, asteazkena



VIII. KAPITULUA. INGURUMEN-ALDERDIAK

39. ART. PLAN BEREZIA EGIKARITZEAN ETA GARATZEAN AINTZAT HARTU BEHARREKO INGURUMEN-AZTERKETA ESTRATEGIKOAREN ALDERDIAK

Plan Bereziaren aurreikuspenen garapenean prestatzen diren proiektuek Ingurumen Azterketa Estrategikoaren ingurumena zaintzeko programa (2024ko ekaineko azken bertsioan) eta neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaile guztiak jaso beharko dituzte.

Programa hori betetzen den aztertze helburuarekin, Administrazio jarduleak ingurumen-asistentzia teknikoa eduki beharko du.

Gainera, Ingurumen Azterketa Estrategikoan adierazitako ingurumen kontrolak eta neurri babesle eta zuzentzaile guztiak txertatu beharko dira eraikuntza-proiektuetan, eta eraginkortasuna bermatzeko behar besteko xehetasun-mailarekin txertatu beharko dira.

Aurrekontuan sar daitezkeen neurriak obra-unitate gisa barnean hartu beharko dira urbanizazio- eta eraikuntza-proiektuetan —dagokien partida ekonomikoa ere adierazi beharko da—.Aurrekontuan sartu ezin direnak baldintza teknikoen agirian sartu beharko dira.

Lur-mugimendua edo egungo elementuen eraispena eskatzen duen jarduketa orotarako nahitaez idatzi beharko da eraikuntza- eta eraispen-hondakinak kudeatzeko azterketa. Azterketa hau eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuan eta eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan definituta dago.

2024ko irailaren 25a, asteazkena



IX. KAPITULUA.- BIRIBILGUNEA EGITEKO KANPOKO DIKEA ETA DARTSENA ZABALTZEARI LOTUTAKO BALDINTZATZAILEAK

40. ART.- BIRIBILGUNEA EGITEKO KANPOKO DIKEA ETA DARTSENA ZABALTZEARI LOTUTAKO BALDINTZATZAILEAK

Plan Bereziak aurreikusten du kanpoko dikea 32 metro handitzea itsaso aldera, eta dartsena handitzea biribilgune batekin, Erriberako kaiaren eta Ontzioletako dikearen abioaren arteko elkargunean.

Eskualdatutako itsas-lehorreko jabari publikoaren funtsezko aldaketak dira bi jarduera horiek; beraz, obra horiek garatzen dituzten proiektuek Trantsizio Ekologikorako Ministerioko Itsasertzaren eta Itsasoaren Jasangarritasun Zuzendaritza Nagusiaren (edo haren ordezeko Estatu mailako erakunde homologoaren) aldeko atxikipen-txosten nahitaezko eta loteslea izan beharko dute, atxiki daitekeen Estatuko jabari publikoaren mugaketari, aurreikusitako erabilerei (barne hartuta Kostaldeei buruzko Legearen 49.4 artikuluan eta Kostaldeen Erregelamendu Orokorren 105. artikuluan oinarrituta baimendutako erabileretarako azaleraren eta kokapenaren zehaztapen xehea) eta itsas-lehorreko jabari publikoa babesteko beharrezkoak diren neurriei dagokienez, zeinak gabe, ezingo baitira behin betiko onartu.

Gainera, eskualdatutako itsas-lehorreko jabari publikoaren okupazioa handitzea proposatzen denez Plan Bereziak hautatutako alternatiban, prozedura nahitaezko atxikitze-eskaera izapidetzearen mende egoteaz gain, alternatiben azterketa zehatz bat izan beharko du hautatutako alternatibaren aurreikuspenak garatzen dituen eraikuntza-proiektuak, haietako bakoitzari buruzko balorazio zehatza eta amaierako hautaketaren justifikazioa adierazita.

Nolanahi ere, alternatiben azterketa konparatiboa egitean, itsas-lehorreko jabari publikoaren gutxieneko okupazioaren printzipioa izango da irizpide nagusia.

2024ko irailaren 25a, asteazkena



Era berean, Kostaldeen Erregelamendu Orokorraren 91. eta 97. artikuluetan ezarritakoa zorrotz bete beharko du. Nolanahi ere, Kostaldeen Erregelamendu Orokorraren 61.3 artikuluan araututakoaren arabera, ahalik eta gutxien okupatuko da itsas-lehorreko jabari publikoa.

Proiektua onetsita, okupazio titulu hori akta baten eta atxikipen planoaren bidez formalizatuko da, Kostaldeen Erregelamendu Orokorraren 106. eta 107. artikuluetan xedatutakoaren arabera, eta obrak ezin izango dira hasi akta hori formalizatu arte.

ELANTXOBEKO PORTUKO ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIARI BEHIN BETIKO
ONESPENA EMATEKO ETXEBIZITZA ETA HIRI AGENDA KO SAILBURUAREN
AGINDUAREN II. ERANSKINA


INGURUMEN-ALDERDIAK TXERTATZEA

2024ko irailaren 25a, asteazkena

EUSKO JAURLARITZA

ELIKADURA, LANDA
GARAPENA, NEKAZARITZA ETA
ARRANTZA SAILA

GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE
ALIMENTACIÓN, DESARROLLO
RURAL, AGRICULTURA Y PESCA

Elantxobeko Portuaren Hiri Antolamenduko Plan Berezia

2024KO EKAINA

II. ERANSKINA: INGURUMEN-AZTERKETA
ESTRATEGIKOAREN LABURPEN-DOKUMENTUA



1.- Nola integratu diren planean ingurumen-arloko alderdiak:

Lehenengo atal honetan, ingurumen-azterketa estrategikoan (IAE) zehaztu eta zerrendatutako ingurumen-helburu estrategikoak, printzipioak eta jasangarritasun-irizpideak nola integratu diren aztertzen da labur-labur, hori guztia irismen-dokumentuan Elantxobeko Portuaren Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren hirigintza-dokumentuari buruz ezarrita dauden jarraibideak abiapuntutzat hartuta. Horrela, jarraian banan-banan zerrendatzen dira lau ingurumen-helburu estrategiko nagusiak eta, era berean, Plan Berezian eta IAEan bertan nola kontuan izan diren adierazten da:

1. Kapital naturala babestea, zaintzea eta leheneratzea eta ekosistemek eskaintzen dituzten zerbitzuak zaintzea. Biodibertsitatearen galera geldiaraztea.

Natura 2000 Sareko lekuen egoeraren azterketa xehatua egin da, eta, horri esker, ezarri ahal izan da Plan Estrategikoan (PE) jasotako proposamenak ez duela eragin nabarmenik izango ez espezieetan, ez natura-intereseko eremuetan.

Halaber, ez da hauteman habitaten konektibitatea bermatzen ez duen jarduketarik.

Hala ere, jarduketek kalteak eragin ditzakete itsasoan, batez ere obren fasean. Horregatik, prebentzio-neurri egokiak adierazten dira, hala nola uren eta zaraten kalitatearekin lotutakoak, natura-ingurunean gorabeherarik ez izateko.

2. Egungo belaunaldien beharrak ziurtatuko dituen garapen jasangarria bermatzea, etorkizuneko belaunaldiak beren beharrei aurre egiteko ahalmena arriskuan jarri gabe.

Plan Bereziak Elantxobeko jabari publikoaren mugetan sartzten den eremuaren antolamendu integrala egiten du. Ez du proposatzen eraikuntza-parkea handitzea, eta hobetu egiten du kanpoaldeko bide-sarearekin lotuta dagoen errepide bakarra.

Lurzorua modu arrazional eta intentsiboan erabiltzen da, eta dagoeneko artifizializatuta dauden lurzorua intentsiboki erabiltzea lehenesten da, lurzoru naturala urbanizatzeetik salbu mantentze aldera; izan ere, nagusiki, PEak eremuan dauden egungo

2024ko irailaren 25a, asteazkena



erabilerak finkatzen ditu.

Udal-ekipamendu batean eraikigarritasuna pixka bat handitzea baino ez da planteatzen, solairu bat handituta.

PEaren dokumentuan, gaur egungo eraikuntza-parkea mantenduko dela adierazten da, eta egungo udalerriko eraikin-konfigurazioan lehendik dauden ia eraikin guztiak finkatzen dira.

Kultura-ondareari dagokionez, IAEan prebentzio-neurri egokiak aipatzen dira, eragin posible hori saihesteko.

Era berean, IAEan erabilera jasagarria sustatzeko prebentzio- eta zuzenketa-neurriak adierazten dira. Dena den, proiektuek Urbanizazio Obren Udal Ordenantzan adierazitako eskakizunak betetzeaz gain, IAEko neurriak jaso beharko dituzte.

3. Klima-aldaketaren eragina mugatzea.

Klima-aldaketak hondartzetan izan ditzakeen ondorio garrantzitsuenak uholde-kota aldatzeari eta kosta-lerroak atzeratzeari edo aurreratzeari dagozkionak dira.

Klima-aldaketak ekarritako egoerari dagokionez, Bizkaiko kostaldean, uholde-kotaren gutzitza 0,20 m baino gehiago igoko da.

Hondartzetan izan dezakeen beste efektu bat da kosta-lerroak atzera egin dezakeela, batez besteko maila handitzeak eraginda; ondorioz, hondartzaren profil aktiboak goratu egingo da maila ertaineko egoera berri horrekin oreka dinamikora iristeko.

Bizkaiko kostaldean, batez besteko atzerakada 11 eta 14 metro artekoa da. Hasiera batean, PEak proposatutako jarduketek eragin mugatua dute klima-aldaketaren eraginean.

4. Aire, ur eta lurzoru garbiak eta osasungarriak bermatzea.

IAEan zenbait zuzenketa-neurri ezartzen dira, ondorengo faseetan jorratu beharko direnak, dagozkien proiektuekin.

2024ko irailaren 25a, asteazkena



2.- Planean nola hartu diren kontuan ingurumen-azterketa estrategikoa, jendaurreko informazioaren emaitzak eta kontsulten emaitzak, barnean hartuta, hala badagokio, mugaz gaindiko kontsultak eta ingurumen-arloko adierazpen estrategikoa, bai eta prozesuan sortutako desadostasunak ere, halakorik izan bada:

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2019ko uztailaren 23ko Aginduaren bidez Elantxobeko Portuaren Antolamenduko Plan Berezia hasieran onetsi ondoren, jendaurreko informazioaren izapidea egitea erabaki zen, bi hilabeteko epean. Era berean, ingurumen-azterketa estrategikoari eta aipatutako Plan Bereziari buruzko kontsulta egin zitzaizen ukitutako administrazio publikoei eta interesdunei, alde zuzenetik kontsulta egin baitzitzaizen irismen-dokumentuaren arabera, 45 egun balioduneko epean.

Epe horien barruan, erantzun bakarra jaso zen ingurumen-kontsulten izapidearen barruan: Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuarena (2019-09-11).

Erantzun horretaz gain, honako organismo hauen hainbat txosten edo alegazio jaso ziren:

- Bizkaiko Foru Aldundiko Lurralde Garapenerako Zuzendaritzaren txostena (2019-08-29)
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren txostena (2019-09-09)
- Elantxobeko Udalaren alegazio-txostena (2019-09-25)

Gainera, 2019ko maiatzaren 13an, txosten bat eman da, baina ez da alegaziotzat jotzen, haren aginduak nahitaez kontuan hartu behar baitira izapidetzearekin jarraitu ahal izateko:

- Kostaldearen eta Itsasoaren Jasangarritasunaren Zuzendaritza Nagusiaren txostena, Plan Bereziaren behin-behineko onarpenean kontuan hartu beharreko zenbait gogoeta jasotzen dituena.
- Aurreko txostenaz gain, Plan Bereziaren ondorengo izapidetze-prozesuan txosten gehigarriak jaso dira, 2024ko urtarrilaren 14an (behin betiko aldeko txostena), 2022ko otsailaren 1ean, eta, azkenik, 2021eko otsailaren 11n, Itsaso eta Lehorraren

2024ko irailaren 25a, asteazkena



arteko Jabari Publikoko Zuzendariordetza Nagusiko zuzendari nagusiaren, Ingurumeneko estatu-idazkariaren eta *Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren* aldetik.

Txosten horietako gogoetak nola txertatu diren azalduta eta zerrendatuta dago dokumentu honen I. eranskinean.

Azkenik, epez kanpo, honako txosten hau jaso da:

- Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritzaren txostena.

Txosten horiek eman ondoren, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeko Idazkaritzara beste bi txosten igorri zituzten Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritzak (2020ko martxoaren 11n) eta Bizkaiko Foru Aldundiko Berrikuntzarako eta Bideen Kudeaketarako Zuzendaritza Nagusiak (2020-04-03).

Laburpen-dokumentuaren bigarren atal honetan, ingurumen-alderdiei buruzko kontsulta eta txostenen emaitzen zerrenda bat egingo dugu, bai eta Plan Bereziak nola hartu dituen kontuan alderdi horiek ere.

Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuak emandako erantzunari dagokionez, baieztatu da Plan Bereziaren eremuan ez dagoela Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legearen arabera babestutako ondasunik, eta, babes bereziko kultura-ondasuntzat hartzeko proposatu diren beste ondasun batzuk egon daitezkeenez, Euskal Kultura Ondarearen EAEko Zentroan kontsulta egitea gomendatzen da.

Bizkaiko Foru Aldundiko Lurralde Garapeneko Zuzendaritzaren txostenak Elantxobeko Portuaren Plan Berezia aztertzen du, Gernika - Markinako Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren barruan (martxoaren 1eko 31/2016 Dekretu bidez onartu zen behin betiko, 2016/73 EHAA), Plan horretan lurralde-eremu horretan sartzan diren portuetarako ezartzen diren zehaztapenei dagokienez. Bertan, adierazitako helburua azpimarratzen du, portu bakoitza horietako bakoitzaren errealitatearen araberrako

2024ko irailaren 25a, asteazkena



intensitatearekin indartzeari buruzkoa, eta, zehazki, Elantxobeko portuaren arrantza- eta jolas-erabilerari buruzkoa. Bertan adierazten denez, lurralde-plan partzialean jasotzen diren portuetan egin beharreko ekintzek portuaren eraginkortasun-baldintzak hobetzea dute helburu, eta, horretarako, portuko jarduerak berrantolatzea proposatzen da, babestutako azalera espazioari dagokionez dauden aukerak kontuan hartuta.

Azkenik, txostenak dio Plan Bereziaren xedea Bizkaiko Foru Aldundiko Lurralde Garapeneko Zuzendaritzaren eskumenekoak diren lurralde-izaerako gaiei eragiten ez dieten alderdiak direla; izan ere, portuko jabari publikoaren mugen barruan dauden lurzorua antolatzea du xede. Beraz, ez da jarri prozedurarekin jarraitzeko eragozpenik.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren txostenak dio Plan Bereziak antolamendu bat proposatzen duela Planaren eremuan dauden eraikinak gaur egungo egituren sendotzeko, «Kiroldedia-Arraun Elkarte» izeneko eraikina salbu, kasu horretan, solairu bat handitzea ahalbidetzen baita. Gainerakoetan, txostenak adierazten du Plan Bereziaren antolamenduak portuaren barruko bideak hobetu eta ur-laminaren funtzionaltasuna hobetu nahi duela, iparraldeko dikean esku hartuta.

Txosten horren arabera, Plan Bereziaren barruan Euskal Kultura Ondarearen Zentroak bere arkitektura-ondasunen katalogoan jasotzen dituen hiru eraikin daude. Eraikin horiek tokiko intereseko elementuak dira eta hirigintza-plangintzaren bidez babestu behar dira. Honako hauek dira:

- 43. etxea, Portu kalea 7
- 45. etxea, Portu kalea z.g.
- 49. etxea, Portu kalea z.g.

Bertan adierazten denez, inguruabar hori behar bezala jasota eta landuta dago ingurumen-azterketa estrategikoan, eta Plan Bereziaren antolamendu-proposamenak ez die zuzenean eragiten eraikin horiei. Hala ere, ingurumen-azterketa estrategikoan behar adina prebentzio-neurri jasotzen dira portu zaharraren eta tokiko intereseko hiru eraikinen kultura-balioak bermatzeko.

Azkenik, txostenak dio Plan Bereziaren babes-araudiak, eraikuntzaren eraikuntza-kalitate estetiko baldintzei buruzko 20. artikulua bidez, paisaia- eta arkitektura-kalitate egokia bermatzen duela. Bertan jasotzen denez, fatxadetako eta estalkietako paramentuen

2024ko irailaren 25a, asteazkena



gainazaleko akaberek eta erremateek ingurunekoekin harmonia mantenduko dute, ikoniko eta adierazgarritzat jotzen diren elementuen kasuan salbu, eta berariaz adierazten da eraikuntza-jarduketa guztiek Elantxobeko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Eraikuntza Ordenantzako zehaztapenak bete beharko dituztela.

Elantxobeko Udalak portuan ibilgailuak aparkatzeko arazoa planteatu du, eta lehendik dagoen aparkalekuaren gainean solairu berri bat eraikitzea proposatu du: solairu horren eraikuntza ezetsita geratuko litzateke, Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak emandako irizpideetan oinarrituta; izan ere, portuko jabari publikoa ez litzateke aparkalekuen premiari erantzuteko erabiliko, portuak asebate beharreko beste erabilera eta jarduera batzuk dituelako. Ingurumenaren eta paisaiaren ikuspegitik, Elantxobeko portuan izan lezakeen eragin negatiboa ere kontuan hartuko litzateke.

Udalak egiten duen bigarren planteamenduaren harira, arkitektura-oztopoak kentzeko portuko bideen kotarekiko zabalera nahikoa eta altuera handiagoa duen oinezkoentzako eremu bat eraikitzeari dagokionez: jarduketa hori ezetsita geratzen da Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzaren irizpideen arabera, horrek nabarmen gutxitu baitezake egun dagoen bide-trazaduraren funtzionaltasuna, eta kanpoko dikera sartzeko arazoak sor baititzake egoera jakin batzuetan.

Kostaldeen eta Itsasoaren Jasangarritasun Zuzendaritza Naqusiaren txostenak Plan Bereziaren behin-behineko onarpenean kontuan hartu beharreko zenbait gogoeta jaso zituen, horietako batzuk ingurumenarekin lotutakoak, Plan Bereziak osorik jaso dituenak:

- ✓ Antzinako ontziolaren eraikineko lehen solairuko bizitegi-erabilera kendu zen; izan ere, erabilera hori bateraezina da kostaldee buruzko araudiarekin.
- ✓ Merkataritza- eta zaharberritze-erabilerei dagokienez, Plan Bereziak, erreferentziako txosteneko jarraibideei jarraituz, gaur egun erabilera hori duten lokal guztien inbentarioa egiten du, eta bakoitzaren azalera-hedapenak definitu ditu.
- ✓ Hondakin-uren araztegia eta saneamendu-sareak itsasertzean daude, Kostaldee buruzko Legeak egoera hori debekatzen duenez (Kostaldee buruzko Legea indarrean jarri ondoren egindako instalazioa delako), ezabatu egin da instalazioak Kostaldee buruzko Legearen araubide iragankorraren mende zeudela adierazten zuen paragrafoa. Gainera, hauxe errepikatzen du: lurzorua okupatzeko

2024ko irailaren 25a, asteazkena



- administrazio-emakidaren azken luzapena amaitu ondoren, azpiegiturak itsasertzetik kanpo eta 20 metrora baino gehiagora kokatu beharko dira.
- ✓ Kanpoko dikea 32 m itsasorantz zabaltzeari eta kaia eta ontziolaren dikearen hasiera elkartzen diren biribilgunea handitzeari dagokionez, Plan Bereziak Kostaldearen eta Itsasoaren Jasangarritasunerako Zuzendaritza Nagusiak ezarritako baldintzak ere jasotzen ditu (Ministerioaren aldeko txostena, atxiki daitekeen Estatuko jabari publikoaren mugaketari, aurreikusitako erabilerei eta itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoa babesteko behar diren neurriei buruzkoa).

Aurreko txostenaz gain, Plan Bereziaren ondorengo izapidetze-prozesuan txosten gehigarriak jaso dira, 2024ko urtarrilaren 14an (behin betiko aldeko txostena), 2022ko otsailaren 1ean, eta, azkenik, 2021eko otsailaren 11n, Itsaso eta Lehorraren arteko Jabari Publikoko Zuzendariorde Nagusiko zuzendari nagusiaren, Ingurumeneko estatu-idazkariaren eta *Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren* aldetik. Txosten horietako gogoetak nola txertatu diren azalduta eta zerrendatuta dago dokumentu honen I. eranskinean.

Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritzaren idazkiaren ondorioen arabera, ez da ebaluazio egokirik egin ikusteko dikea zabaltzeak zer eragin izango lukeen Natura 2000 Sareko habitaten eta espezieen gainean (Mundakako itsasadarreko - Ogoño lurmuturreko itsas espazioa HBBEa - ES0000490). Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak baietsi egin du alegazio hori, eta Geografian eta Historian lizentziaduna eta gai horretan aditua den teknikari naturalista bati dagokion txosten teknikoa egin dezan eskatu dio, honen izenpean: «Dikearen luzapena dela-eta, katalogatuta dauden bi itsas hegaztiri (ubarroi mottoduna eta ekaitz-txori txikia) eragin diezazkiekeen kalteei buruzko azterketa». Txosten horrek, labur-labur, ondorioztatzen du dikea luzatzeak ez diola apenas eragingo ubarroi mottodunari elikatzeke unean, eta, era berean, ez da eragingo bi espezieen ugalketa-aldian ere, gertuen dauden habiak urrun daudelako.

Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza. Txosten-proposamen honetan adierazitako alderdi lotesleean artean, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Patronatuari nahitaezko txostena eskatu beharra ezartzen da (hark erabakiko du Plan Berezia espazioaren araudiarekin bateragarria den); izapide hori eginda dago, eta

2024ko irailaren 25a, asteazkena



2019ko irailaren 5ean sinatutako txostena ere jaso da. Bertan adierazten denez, Plan Bereziaren deskribatutako jarduketak ez daude jasota irailaren 27ko 139/2016 Dekretuak (azaroaren 28ko EHAA, 226. zk.) ezarritako Administrazioaren Esku-hartze Araubidean; beraz, ez daude txosten-prozeduraren mende, hori guztia Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Babesteari eta Antolatzeari buruzko uztailaren 6ko 5/1989 Legearen esparruan. Gainera, txostenean adierazten da Bizkaiko Foru Aldundiari nahitaezko txostena eskatu beharko zaiola (Bizkaiko Foru Aldundiak ubarroi mottodunari eta ekaitz-txori txikiari eragin dakizkiekeen kalteei buruzko iritzia emango du, bi administrazio horiek arduratzen baitira espezie horien kudeaketaz). Txosten hori ere eskatu zen, aurreko atalean adierazitakoari erantzunez; hau da, Geografian eta Historian lizentziaduna eta gai horretan aditua den teknikari naturalista bati dagokion txosten tekniko eskatu zitzaion, honen izenpean: «Dikearen luzapena dela-eta, katalogatuta dauden bi itsas hegaztiri (ubarroi mottoduna eta ekaitz-txori txikia) eragin diezazkiekeen kalteei buruzko azterketa». Lotesleak ez diren alderdien artean, hiru gai hauek planteatzen dira:

1. Plan Bereziaren ingurumen-azterketa estrategikoaren ingurumena zaintzeko programa gehiago zehaztu behar da. Ingurumen-azterketa estrategikoaren E atalean ere adierazten eta zehazten da azken alderdi hori (aldagai bakoitzerako kontrol-parametroak, zaintzaren aldizkakotasuna eta abar identifikatuz, uren alterazio-mailen jarraipena funtsezkoa baita aurreikusitako kontrolerako). Zuzendaritza honek gai horri erantzun dio, eta haren integrazioa sakon aztertzen da dokumentu honen 5. atalean.
2. Klima-aldaketak aurreikusitako obretan izango duen eragina justifikatu behar da, baita obra horien diseinuak aldaketa horiei aurre egiteko aukera emango duen ala ez ere.
3. Plan Bereziak zerbitzugunea erabiltzeko aukera irekitzen du eta, zentzu horretan, inpaktuen azterketa berrikusi beharko da; horrela, bada, aurreikus daitezkeen inpaktuak eta inpaktu horiek minimizatze/saihesteko ezar litezkeen neurriak aurreratu beharko lirateke, proiektuaren IIaren esparruan egin beharreko azterketarako ezinbestekoa den alderdia.

2. eta 3. puntuak, lotesleak ez direnez eta beste txosten batzuetan edo ingurumen-adierazpen estrategikoan ere aipatu ez direnez, Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritza honek, hura baloratu eta aztertu ondoren, horiek ez kontuan hartzea erabaki zuen.

2024ko irailaren 25a, asteazkena



Bizkaiko Foru Aldundiko Berrikuntza eta Errepide Kudeaketako Zuzendaritza Nagusia. Plan Bereziaren antolamenduan BI-2237 errepidearen amaieran biribilgune bat jartzea aurreikusten denez, eta, ondorioz, horrek foru-errepidearen inguruetan eragina izan dezakeenez, 18 metroko eraikuntza-lerroa errespetatzeko betebeharra ezarri da. Gainera, adierazten du eraikuntza-lerroaren aurretik dauden eraikin eta instalazioetan higiene-, mantentze- eta apainketa-arrazoiengatik bakarrik egin ahal izango direla konponketa-lanak. Plan Bereziak baldintza horiek jasotzen ditu hirigintza-araudiari buruzko ataleko 25. artikuluan (2. dokumentua).

Azken ondorio gisa, eta aurreko ataletan egindako azalpenaren ondoren, adierazi beharko litzateke Elantxobeko Portuaren Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren azken proposamenean sartu direla ingurumen-azterketa estrategikoan jasotako ingurumen-alderdiak eta horiek nola egokitu diren irismen-dokumentuan, bai eta egindako kontsulten emaitza eta horiek nola hartu diren kontuan ere. Gainera, dokumentu honen 5. atalean aztertzen eta deskribatzen den bezala, ingurumena zaintzeko programa are gehiago zehaztu da (Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak hala eskatu zuen bere txostenean, eta nahitaezko baldintza gisa jasotzen da ingurumen-adierazpen estrategikoaren E atalean).

3.- Aukeratutako alternatiba hautatzeko arrazoiak, aintzat hartutako gainerako alternatibekin alderatuta:

Jarduteko hiru alternatibak azaldu ondoren, horiek aztertu eta baloratu dira. Garrantzitsua da azpimarratzea balorazio horretan faktore erabakigarritzat hartu dela itsaso eta lehorren arteko jabari publikoa ahalik eta gutxien okupatzea.

Alderdi hori beti kontuan hartuta, pisuzko arrazoi nahikoak daudela ondorioztatu da hirugarren alternatiban (2. alternatiba) jasotako proposamena onartzeko; eta batez ere kontuan hartu dira horrek dakartzan hobekuntzak portuaren babes-baldintzei dagokienez, eta, ondorioz ur-laminaren agitazioa murrizteari dagokionez; izan ere, horrela kanpoko dartsenan atrakatzeko baldintzak hobetzea ere ahalbidetzen da, egun dauden ainguratzebuien ordez pantalan berriak jarriz.

2024ko irailaren 25a, asteazkena



Nahiz eta hirugarren alternatiba horrek (2. alternatiba) ez duen bermatzen itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoa ahalik eta gutxien okupatzea, adierazi behar da aukera hori dela Plan Bereziaren helburu estrategikoak betetzea ahalbidetzen duen bakarra.

Izan ere, funtsezkoa da azpimarratzea hautatutako aukeran planteatzen den itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoa zabaltzea hurbilketa bat baino ez dela, gutxi gorabeherakoa eta zuzendaritza sustatzaileak Elantxobeko babes-azpiegituren antzekoetan duen esperientzian oinarrituta egindakoa. Bistakoa denez, etorkizunean, plangintza onartu ondoren, eraikuntza-proiektu batek arautuko ditu azpiegitura horren ezaugarriak, hura definitu eta justifikatzeaz gainera, eta proiektu horrek barnean hartuko ditu dagozkion azterketa teknikoak eta ebaluazioak, ikuspuntu teknikotik zein ingurumenekotik proposamenaren egokitasuna bermatzeko. Gainera, proiektu hori gauzatzeko, atxikipenaren aldeko nahitaezko txosten loteslea eduki beharko da, Trantsizio Ekologikorako Ministerioko Kostaldearen eta Itsasoaren Jasangarritasunaren Zuzendaritza Nagusiaren eskutik (edo hori ordeztzen duen Espainiako organismo homologoaren aldetik).

Egindako antolamendu-proposamena, ildo horretan, aukera anbiziotsuena da portu-azpiegiturari dagokionez, eta barne-agitazioa murrizteko hobekuntza-programa osatzea du xede (bere garaian Tecnocean ingeniari-taldea Eusko Jaurlaritzako Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak aginduta egindako «*Elantxobeko portuan olatuek eta uhin luzeek eragindako agitazioari buruzko azterketan*» bildutakoa). Hau da, nahiz eta itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoa ahalik eta gutxien okupatzea lehentasunezko faktorea izan den aukeren balorazioan, planteatutako hiru aukeretatik anbiziotsuena aukeratu behar da planaren helburuak bete ahal izateko, eta berriro esan behar da itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoaren irabazia portuaren babes-baldintzak hobetzeko gutxienekoa izan dela eta, ondorioz, barruko ur-laminaren agitazioa murrizteko. Horrela, eraikuntza-proiektua izango da etorkizunean babes-dikearen luzapenaren tamaina definituko duena.

Eraikuntza-erregimenari dagokionez, Plan Bereziak, adierazi den moduan, eraikinaren eraikigarritasunaren, altueraren eta profilararen parametroak mantentzea aurreikusten du, eraikin guztiek gaur egun duten egoerarekin, modu korrelatiboan. Salbu eta «kiroldegiari» dagokion eraikina; izan ere, haren eraikigarritasuna apur bat handitzea ahalbidetzen da, portuko lehen lerroko eraikinen muturrean dagoelako. Zehaztapen horiek eraikin horietako bakoitzerako egindako hirigintza-fitxetan jasotzen dira. Fitxa horietan,

2024ko irailaren 25a, asteazkena



hauek adierazten dira: oinplano-okupazioaren azalera, solairu kopurua, gehieneko hirigintza-eraikigarritasuna, erabilera-araubidea eta horietako bakoitzean baimendutako jarduketaren araubidea.

Eraikuntza-parkearen erabilera xehatuen ikuspegitik, Planak baimendutako erabilera-araubide zabal eta ireki bat ezartzen du, egungo errealitatean oinarrituta eta eraikuntza-unitate baten barruan, Plan Orokorrek ekipamendu-sistema orokor gisa ematen duen kategorizaziotik etorritako zuzkidura-erabilera gehienak eta zuzkidura-erabilera eta portu-zerbitzuekin edo -jarduerekin lotutako edo lotutako beste batzuk bateratzea baimentzen duena.

Bide-sareari dagokionez, Plan Bereziaren proposamenak gaur egun ibilgailuen eta oinezkoen zirkulaziorako erabiltzen diren espazioak berrantolatzea aurreikusten du, eta espazio horiek erabiltzeko jarduketa-araubide berri bat ezartzen du. Proposamenean, bereizi egiten dira lehentasunez ibilgailuen sarbidera, zirkulaziora eta aparkalekuetara bideratutakoak eta oinezkoentzako eremu eta ibilbideetara bakarrik zuzentzen direnak. Azken horiei dagokienez, bide-proposamenak behar diren neurriak ezartzen ditu Elantxobeko hirigunearen hiri-ehun teilakatuan oinezkoentzako bost ibilbideak irisgarriak izan daitezen erabat bermatzeko. Ibilbide horiek portuan amaitzen dira, eskalinen edo malda handien bidez.

Planaren proposamenak hirugarren eremu bat mugatzea aurreikusten du bideetara zuzendutako espazioaren barruan, non oinezkoen lehentasunezko erabilera ibilgailu motordunen erabilera mugatuarekin uztartuko bailitzateke, baina portuan dauden eraikinetan garatutako erabilerek eta jarduerak eskatzen duten ibilgailuen noizbehinkako irisgarritasun-eskaerari erantzuteko bakarrik.

Horri dagokionez, jarduketa garrantzitsu gisa, erriberako kaia (Portu kalearekin bat egiten duena) eta ontziola inguruko dikearen hasiera elkartzeko diren lurreko azalera handitzea aurreikusten da. Hala, portu barruko bideei zuzendutako azalera handituko litzateke, eta biribilgune txiki bat sortzea ahalbidetuko litzateke. Biribilgune horri esker, ibilgailuen zirkulazioa hobetuko litzateke, eta portura eskualdeko errepidetik sartzeko eta bertatik irteteko maniobrak modu eraginkorragoan antolatuko lirateke.

2024ko irailaren 25a, asteazkena



Azkenik, eremuak behar bezala funtzionatzeko beharrezkoak diren zerbitzu-sareak ezartzea edo, hala badagokio, osatzea aurreikusten da. Gaur egun dauden azpiegiturak eta zerbitzuak jasotzen dira, hots, Elantxobeko portuari eta hiriguneari batera zerbitzua ematen dieten saneamendu- eta hornidura-azpiegiturak. Horren adierazlerik handiena udal-kiroldegia dagoen eraikinaren parean dagoen hondakin-uren araztegia izango litzateke. Horren barruan, proposamen nagusi bat dugu: ontziolako dikearen azpitik lihoakeen zerbitzu-galeria berri bat aurreikustea.

Azkenik, erriberako kaiaren eta ontziolako dikearen artean jartzea aurreikusten den lurreko azaleratik gertu gasolindegia bat ezartzeko aukera aurreikusten da.

Bideei dagokienez, dokumentuan gaur egun dauden ibilgailuen eta oinezkoen bideak jasotzen dira, eta neurriak hartzen ditu une oro portutik abiatzen diren oinezkoentzako bideen irisgarritasuna bermatzeko, geroago hiriguneko hiri-sarean txertatzeko.

Azpiegituren ikuspegitik, eremuaren barrutik igarotzen diren hiri-zerbitzuen egungo sareak puntualki hobetzeko planteatzen diren esku-hartze txikiak gorabehera, Dokumentuak proposamen nagusi gisa honako hau jasotzen du: ontziolako dikearen luzera osoa hartuko lukeen zerbitzu-galeria berri bat eraikitzea.

4.- Organo substantiboak planaren eduki osoa herritarrentzako eskuragarri jarriko duen helbide elektronikoa:

[Hirigintza-planak - Portuak - Euskadi.eus](#)

5. Planaren aplikazioak ingurumenean izandako eraginaren jarraipena egiteko hartu diren neurriak:

PREBENTZIO- ETA ZUZENKETA-NEURRIAK:

Atal honetan, Plan Bereziaren ingurumen-azterketa estrategikoaren 7. atalean (Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak) jasotako neurriak identifikatzen dira lehenik eta behin, bertan jasotzen diren jarduketek, eta bereziki obra faseetako jarduketek, ingurumenean, natura-baliabideetan, uren kalitatean edo kultura-ondarean izan ditzaketen

2024ko irailaren 25a, asteazkena



ondorio eta inpaktu nabarmenen jarraipena egiteko, horiek kontserbatzeko helburuarekin. Gainera, Plan Bereziaren 39. artikuluan bereziki aipatzen da «Plan Bereziaren aurreikuspenen garapenean prestatzen diren proiektuek ingurumen-azterketa estrategikoaren ingurumena zaintzeko programa (azkeneko bertsioa, 2024ko ekainekoa) eta babes-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurri guztiak jaso beharko dituztela, baita ingurumen-adierazpen estrategikoan ezarritako neurriak ere». Esan behar da ingurumen-azterketa estrategikoan ezarritako ingurumena zaintzeko programaren 2024ko ekaineko hedapena (haren jatorrizko bertsioari dagokionez) xehetasunez aztertzen dela dokumentu honen azken atalean.

Kontuan hartuta obren fasea dela inpaktu gehien jasaten dituen fasea —ez beti intentsitateagatik, baizik eta jarduketetan gertatu ohi den aurreikuspenik ezagatik—, honako hauek izango dira prebentzio-neurri egokienak: doitu beharreko azalera minimizatuko dituzten, obra-egutegiak doitu dituzten, eta eraikuntzaren diseinua eta materialak egokitzen dituzten planteamenduetan oinarritzen direnak. Oro har, obren fasean zehar *ingurumen-jardunbide egoki* batzuei jarraikiz lan egingo da.

Obrek eragin ditzaketen inpaktu nabarmenen zuzenketa-neurrien artean, honako hauek ditugu:

- ✓ *Orokorrean, obra faseak irauten duen bitartean, hainbat alderdik sortutako eragozpenak arintzeko (hautsa, obren zarata, hondakinak eta haien kudeaketa eta abar) zuzenketa-neurriak txertatu beharko lirateke.*
- ✓ *Obrekin hasi aurretik, ekintzen programazioa egitea komeni da, beharrezkoak diren bide-desbideratzeak programatzeko eta horiek seinaleztatzeko.*
- ✓ *Obrako Segurtasun eta Higiene Proiektuak neurri zehatzak jaso beharko ditu lan-higienearen, hondakinen kudeaketaren, garbiketa orokorraren eta makineriaren inguruan.*
- ✓ *Bideetan eta portuaren inguruan jarriko den argiteriak sortu lezakeen argi-kutsadura minimizatuzeko hartuko diren neurri zehatzak zehaztuko dira. Ereku jakin horretan aurreikusitako jarduerak burutzeko gaueko iturri artifizial batek gehiegizko argi-fluxua ematen badu, bai intentsitatean, bai norabidean, bai espektr-mailan, argi-kutsaduratzat joko da. Aurretik ere adierazi den moduan, neurri hori garrantzitsutzat jotzen da gauez ibiltzen diren hegaztiei, zehazki ekaitz-txoriari, eragitea saihesteko.*

2024ko irailaren 25a, asteazkena



- ✓ *Arreta berezia jarriko da itsas ingurunean izan daitezkeen eraginak minimizatzeko. Beraz, ingurune hori zaindu egingo da, zuzeneko isurketa edo eragin oro saihesteko.*
- ✓ *Arreta berezia jarri beharko zaie sortzen diren hondakin guztiei, arriskutsuak izan edo ez. Hondakin horiek behar bezala kudeatu behar dira, baimendutako kudeatzaileen bidez, eta ezin izango dira inola ere portuko uretara iritsi.*
- ✓ *Obrak sortutako hondakinen (hiriko hondakin solidoak eta antzekoak, geldoak eta arriskutsuak, halakorik egonez gero) kudeaketa egokia egingo da araudiari eta berrerabilpen-birziklatze-gaikako bilketa praktikei jarraikiz.*
- ✓ *Hondeaketetan sortutako hondakinak araudiaren arabera kudeatuko dira, eta zabortege kontrolatu batera eramango dira edota baimena duen kudeatzaile batek jasoko ditu. Eraispenetan, aintzat hartu beharko dira eraikuntzako hondakinak berrerabiltzeko planak.*
- ✓ *Hiri-hondakinen antzeko hondakinak gaika biltzeko gune egokiak aurreikusiko dira jarduketak hartzen dituzten eremuetan. Beraz, portuko jardueretarako birziklatzeko edukiontzia izatea aurreikusi beharko da.*
- ✓ *Aldi batez okupatuko den eremua balizatu egingo da, behar-beharrezkoa ez den eraginik ez izateko.*
- ✓ *Obretako hauts-partikulen eta kutsatzaileen dispersioa mugatuko da. Horretarako, makineria behar bezala mantenduko da, ibilgailuak garbituko dira, garraiatutako kargak estaliko dira, sarbideak eta irteerak kontrolatuko dira, obrako materialak behar bezala biltegitratuko dira, eta lan-eremuak bustiko dira, ahal denean edo beharrezkoa denean.*
- ✓ *Kamioiak busti edo garbitu egingo dira, gertuko biztanleek hautsik edo bestelako eragozpenik pairatu ez dezaten. Garai lehorrenetan ekintza hau zorrotzago beteko da.*
- ✓ *Kamioien zama olanez estaliko da, atmosferako partikula kopurua ez areagotzearren eta ondoren inguruan ez metatzearren.*
- ✓ *Materialak kargatzeko/deskargatzeko, hondeaketak egiteko eta, oro har, haizearen abiadura (bektore sakabanatzailea) 10 km/h-koa baino txikiagoa den aldietara hautsa edo partikulak igortzea/mobilizatzea eragin dezakeen operazio oro mugatuko da. Hala, jarduera horien eguneroko plangintzan, obraren zuzendaritzak kontuan hartu beharreko beste faktore bat izan beharko luke: eguraldiaren iragarpena. Arau orokor gisa, egun edota aldi ezegonkorretan edota fronte bat iragarri duten egunetan, jarduera horiek bertan behera uztea gomendatzen da.*

2024ko irailaren 25a, asteazkena



- ✓ *Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legearen II. eranskinaren arabera kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak dituzten eremuek arlo horretan indarrean dagoen araudiaren araberako kudeaketa beharko dute.*
- ✓ *Hondeatutako eta dragatutako materialak lehorreko biltegiaren bidez kudeatzen badira, haiek lehertzeko eremu bat prestatu beharko da, lixibiatuak biltzeko eta solidoak dekantatzeko sistema bat barne. Kutsatuta ez dauden eremuko material horiek guztiak betelanak egiteko erabili ahal izango dira.*
- ✓ *Lursailaren gainean isurketak egitea galaraziko da. Obretako makineria parkeak eta instalazio osagarriak hartzen dituzten eremuek zolata iragazgaitza eduki beharko dute eta istripuz gertatutako isurketak biltzeko drainatze-sistema bat ere bai.*
- ✓ *Aparkalekuen kasuan, garrantzitsua da plataforma prestatzean zola iragazgaitza izatea eta lixibiatuen bilketa bermatuko duen drainatze-sistema bat jartzea, behar bezala tratatzeko eta urekin inolako interakziorik ez izateko.*
- ✓ *Proiektatutako obrak izapidetzen/gauzatzen diren artean zabortegei bat eduki behar dela edo betelan bat egin behar dela planteatzen bada, honako hauetan xedatutakoa beteko da: otsailaren 24ko 49/2009 Dekretua (Hondakinak hondakindegietan biltegitatuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena) eta uztailaren 31ko 1304/2009 Errege Dekretua (Hondakinak hondakindegian utzita ezabatzea arautzen duen abenduaren 27ko 1481/2001 Errege Dekretua aldatzen duena).*
- ✓ *Eraikinetan, ahal delarik, erabili beharreko eraikuntza-materialak ahalik eta iraunkorrenak eta gutxien kutsatzen dutenak izango dira (Europako Energia Gidalerroak eta Euskadiko Energia Estrategia, 3E-2010).*
- ✓ *Obra fasean, erreferentziako soinu mailen kontrolak aplikatuko dira, horrela, beharrezkoa balitz, zarata gutxitzeko neurriak ezarriko lirateke.*
- ✓ *Eraikinetan erabiliko diren eraikuntza-materialek isolamendu termikoko maila handia izan beharko dute, iraunkorrenak izango dira, eta ahal den gutxien kutsatuko dute.*
- ✓ *Lehendik dauden ekipamenduetan eta jarduketa berrietan energia aurrezteko eta energia berriztagarriak erabiltzeko ekintzak barne hartzea erraztuko da. Eguzki-instalazioak planteatuko dira ekipamendu berrietarako eta lehendik daudenetarako, bai eta aparkalekuak argiztatzeko ere. Eraginkorrak ez diren argi-puntuak aldatuko dira, batez ere argi-kutsadura murrizten laguntzen dutenak.*
- ✓ *Ekipamendu berrietan ura eta energia-kontsumoa aurrezteko sistemak ezartzeko aukera aztertuko da. Esaterako, ur beroaren eta garbiketarako uraren horniketarako sistema mistoak ezartzea; eguzki-atzitzailak eta metagailuak, adibidez.*

2024ko irailaren 25a, asteazkena



- ✓ *Ur grisa moduan erabiltzeko (komunetako tangak, adibidez) euri-ura birziklatzeko sistema txertatzea planteatuko da.*
- ✓ *Banaketa-sareak eraikitzean edo aldatzean, ahal den neurrian, sare-diseinua izan dezan ahaleginduko da, eta lerro terminalak saihestuko dira. Sareak, era berean, sektoreka ixteko mekanismoak eta purgatzeko sistemak edukiko ditu.*
- ✓ *Saneamendu-sare berriek euri-urak eta hondakin-urak bereizi beharko dituzte.*
- ✓ *Hondakin-uren sarea edateko ura banatzeko sarearen eta euri-urak husteko sarearen azpitik igaroko da beti.*
- ✓ *Kanpoko argiztapenaren instalazioen diseinuaren, egikaritzearen eta mantentzearen baldintza teknikoak azaroaren 14ko 1890/2008 Errege Dekretuko preskripzioen arabera arautuko dira. Dekretu horren bidez onartzen dira kanpoko argiztapen-instalazioen energia-efizientziari buruzko araudia eta horretarako jarraibide tekniko osagarriak (EA-01etik EA-07ra).*

Bestalde, natura-baliabideak kontserbatzera bideratutako zuzenketa-neurriak, zehazki, inguruko fauna eta flora babestekoak, NATURA 2000 SAREAREN KONTSERBAZIO-NEURRIAK URDAIBAICO ETA GAZTELUGATXEKO DONIENEO EREMUETAN dokumentuan ezarritakoak izango lirateke, eta, zehazki, ingurumena kontserbatzeari eta hobetzeari buruzko orokorrak, eta fauna kontserbatzeari eta hobetzeari buruzkoak. Neurri horiek zehatz-mehatz deskribatzen dira Plan Bereziaren Ingurumen Ebaluazio Estrategikoaren 7.4 atalean. Gainera, kontuan hartuta ubarroi mottodunarentzako eta ekaitz-txori txikiarentzako interes bereziko eremuak portutik 500 metrora baino gehiagora daudela, distantzia hori nahikoa izango litzateke espezie horiei ez eragiteko; hala ere, prebentzio-neurriak hartuko dira urak ez kutsatzeko eta zaratarik ez sortzeko, batez ere espezie horiek ugaltzen diren hilabeteetan.

Honako hauek izango lirateke uren kalitatea babesteko zuzenketa-neurriak:

- ✓ *Teknikoki bideragarria bada, materialen berreskidura ahalik eta gehien minimizatuko duten dragatze-sistemak erabiliko dira. Ahalik eta gehien saihestu behar dira uraren uhertasunak eta sedimentuan pilatutako metalak zirkulazioan jartzeak eragindako inpaktuak. Horretarako, hau gomendatzen da:*
 - *Babes-pantailak erabiltzea lanerako karga-besoaren inguruan.*
 - *Eremu hidraulikoa kaiaren betelanak egiteko sortu da, eta isurketa-eremuaren barruan frakzio finaren sedimentazioa errazten duten faktore guztiak kontuan hartuta diseinatu beharko da.*

2024ko irailaren 25a, asteazkena



- *Ekintza mekanikoko dragetan, koilara-dragek ongi doitu behar dute kuskuen itxiera.*
- *Draga hidraulikoetan, ahalik eta energia gutxien kontsumitzen duten buruak erabiltzea komeni da, lohia sakabanatzea saihesten duten pantailak dituztenak.*
- ✓ *Itsas ingurunera isurketak egiteko aukerari dagokionez, portuaren kudeaketan txerta daitezkeen prebentzio-neurriak hartzea gomendatzen da:*
 - *Ontzietatik errefus solidoak edo likidoak isurtzea saihestera zuzendutako neurriak (zaborra, kindurtzak garbitzea eta abar).*
 - *Gasolindegirako segurtasun-neurriak, instalazioen estankotasuna eta erregaia kargatzeko eta hornitzeko eragiketen segurtasuna bermatzeko.*
 - *Itsasora isuritako ur guztiak araztea.*

Azkenik, kultura-ondarea kontserbatzeko zuzenketa-neurriei dagokienez, zehaztu behar da, Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren txostenean adierazten den moduan, jarduketek prebentzio- eta diseinu-neurri nahikoak izan beharko dituztela Elantxobeko arrantza-portu zaharraren paisaia- eta etnografia historikoaren balioak bermatzeko. Halaber, biribilgunearen eta bere bideen obraren zuinketan, 49. elementua fisikoki isolatzeko dagoen beharra baloratu beharko da (Portu kalea z.g. helbidea duen etxea), bermatzeko ez zaiola eragiten.

Adierazi behar da konpentsazio-neurriak eragin negatiboek zuzentzerik ez dutenean aplikatuko direla, eragin oneko ekintzen bidez besterik ezingo baitira konpentsatu. Kasu honetan, ez da beharrezkotzat jo halako neurriak hartzea.

Aurrekoari gehitu behar zaio, Elantxobeko Portuaren Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren Ingurumen Adierazpen Estrategikoaren D atalean jasotakoari jarraikiz, babes-, zuzenketa-, konpentsazio- eta jarraipen-neurriak indarrean dagoen araudiaren arabera gauzatuko direla, eta aurrekoari aurka egiten ez dion horretan, ingurumen-azterketa estrategikoan xedatutakoaren arabera.

Oro har, ingurumen-balioen babesa lehenetsiko duten neurriak aplikatu beharko dira, hau da, jarduketak gauzatzean, proposamen zehatzak aztertu beharko dira eta ingurumen-balioak mantentzen direla bermatzeko neurriak landu beharko dira.

2024ko irailaren 25a, asteazkena



Oro har, ingurumen-azterketa estrategikoan ezarritako eta zerrendatutako neurriei Plan Bereziaren Ingurumen Adierazpen Estrategikoaren D atalean aipatzen diren prebentzio- eta zuzenketa-neurri hauek gehitu beharko zaizkie:

- ✓ *Egin beharreko urbanizazio-obretan, jardunbide egokien eskuliburuan jasotako neurriak hartu beharko dira obretan, lurren eta soberakinen kudeaketan, hondakinen sorkuntzan eta kudeaketan, induskatutako lurzoruen kontrolean, uraren eta airearen kalitatearen eta kalitate akustikoaren babesean. Bereziki:*
 - *Obrako langileek erabiltzeko jardunbide egokien eskuliburua: gutxienez, hauekin zerikusia duten alderdiak bilduko ditu: lanaldiak, makineria, aldi baterako desbideratzeak, isurketak saihestea, ahalik eta hauts eta soinu gutxien sortzea, herritarren lasaitasunean eragin negatiboa izan dezaketen jardunak minimizatzea, hondakinak kudeatzea, etab.*
 - *Hondakinak sortzea eta kudeatzea: obrak egitean eta garbiketa-kanpainak dirauen bitartean sortutako hondakinak kudeatzeko, Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legean eta berariazko arauetan xedatutakoa beteko da.*
 - *Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak 112/2012 Dekretuan xedatutakoaren arabera kudeatuko dira —112/2012 Dekretua, ekainaren 26koa, Eraikuntza eta Eraispen Hondakinen Kudeaketa Arautzeko dena—.*
 - *Hondakin arriskutsuak jasotzen dituzten ontziek 833/1988 Errege Dekretuaren 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak beteko dituzte (833/1988 Errege Dekretua, uztailaren 20koa, Hondakin toxikoei buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko Erregelamendua onartzen duena).*
 - *Olio erabiliak, berriz, industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuan eta EAEn erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duen irailaren 29ko 259/1998 Dekretuan xedatutakoaren arabera kudeatuko dira.*
 - *Airearen kalitatearen eta kalitate akustikoaren babesa: Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duen urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren 22. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, zonakitze akustikoari, kalitate-helburuei eta soinu-emisioei dagokienez, obrak egitean erabiliko diren makinak egokitu egin beharko dira kanpoan erabiltzeko makinaren emisio akustikoei buruz indarrean dagoen araudian ezarritako aginduetara, eta, bereziki, hala badagokie, Kanpoan erabiltzeko makinek ingurumenean sortzen dituzten soinu-emisioak arautzen dituen otsailaren 22ko 212/2002 Errege Dekretuan (apirilaren 28ko 524/2006 Errege Dekretuak aldatua) eta arau osagarrietan ezarritakora.*

2024ko irailaren 25a, asteazkena



Halaber, eguneko lan-ordutegian jardungo da, eta kamioiek obran sartu eta irteteko erabiltzen dituzten bideak garbi mantendu beharko dira; horretarako, presioko ura edo erraztatzeoko makina mekanikoak erabiliko dira.

- *Urak babestea: urbanizazio-proiektuek uretara solidoak ahalik eta gutxien irteteko neurriak aurreikusi beharko dituzte, adibidez: jalkitze-tangak, sedimentuentzako tranpak edo iragazkiak.*

SEGURTASUN-NEURRIAK – INGURUMENA ZAINTEZKO PROGRAMA:

Atal honetan, Plan Berezian jasotako jarduketek eragin ditzaketen ingurumen- inpaktuen jarraipena, kontrola eta zaintza egiteko neurri nagusiak identifikatzen dira, ingurumen-azterketa estrategikoaren 8. atalean jasotzen direnak (ingurumena zaintzeko programa).

Esan behar da ingurumen-azterketa estrategikoan ezarritako ingurumena zaintzeko programaren 2024ko ekaineko hedapena (haren jatorrizko bertsioari dagokionez), Ingurumen Adierazpen Estrategikoan eskatutakoa bete ahal izateko egindakoa, xehetasunez aztertzen dela dokumentu honen azken atalean.

Horrela, hainbat jarraipen-, kontrol- eta zaintza-neurri mota identifikatzen dira, ikuskatzen dituzten alderdien arabera. Jarraian zerrendatzen eta deskribatzen dira:

Kontrol orokorreko neurriak:

- *Plan Berezian jasotako jarduketek babesean idatzitako eraikuntza-proiektuen ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozeduren ondoriozko ingurumen-artikuluak betetzen direla bermatuko da. Proiektu fasean honako hauek azpimarratu behar dira:*
 - *Ingurumen-arloko oinarrizko legeriari dagokionez, proiektuaren baldintza-agirian eta erreferentziazko araudian jasotakoa izango da kontuan.*
 - *Kontratatik plano bat aurkeztuko du eta, bertan, obra-instalazioak non dauden zehatz-mehatz adieraziko da, hala nola makinaren parkea, material, olio eta erregaien biltegiak, eta sarbideak. Horiek guztiak Obra Zuzendaritzak onartu beharko ditu.*
 - *Kontratatik hondakinak kudeatzeko agiria eta biltegiak eta isurketak egiteko baimenak aurkeztuko dizkie baimendutako kudeatzaileei eta administrazio eskudunei.*

2024ko irailaren 25a, asteazkena



- *Instalazioak eta obra osagarriak kendu ondoren, okupatu diren azalerak tratatuko dira.*
- *Hala badagokio, proiektuaren aldatetek edo doikuntzek eragindako ingurumen-alderdiak aztertu eta jakinarazi beharko dira, eta, beharrezkoa izanez gero, dagozkion zuzenketa-neurriak proposatu beharko dira.*

Horiez gain, honako alderdi hauen jarraipen- eta kontrol-neurriak proposatzen dira laburpen gisa:

Natura-baliabideak kontrolatzeko neurriak:

- *Obra eta jarduketa berrien xede diren espazioen jarraipena egingo da itsas ingurunean aurreikusitako eragina ingurumen-azterketa estrategikoan aurreikusitakoa baino handiagoa ez dela kontrolatzeko. Jarraipena bereziki garrantzitsua izango da kanpoko babes-dikea handitzeko eraikuntza-lanetan.*
- *Era berean, NATURA 2000 SAREAREN KONTSERBAZIO-NEURRIAK URDAIBAIKO ETA GAZTELUGATXEKO DONIENENKO EREMUETAN dokumentuan jasotako neurriak betetzen direla kontrolatuko da.*
- *Behar bezala kontrolatuko da, halaber, obra-eremutik distantzia egokia mantentzen dela ekaitz-txori txikiaren eta ubarroi mottodunaren interes-eremuetara; izan ere, ez da inola ere 250 metroko zerrenda gaindituko.*
- *Gauez, obra fasean eta Planaren indarraldian zehar argiztapenak hegazti jakin batzuen gaueko jarduerari eragiten ez diola kontrolatuko da.*

Uren kalitatea kontrolatzeko neurriak:

- *Itsas uren kalitateari dagokionez, obrak egiten diren bitartean ondo kontrolatu beharko da horien kalitatea, aldiari behin kontrol-kanpainak eginda, ur-laginak hartuta eta gero horiek aztertuta.*
- *Dragatze-lanek ondorio kaltegarriak izan ditzakete uren kalitatean, berriz ere partikulak esekitzen direlako.*
- *Kanpaina kopurua dragatze-lanen iraupenera eta betelanen iraupenera egokituko da.*
- *Printzipioz, parametro hauek aztertu beharko dira:*
 - *Temperatura (°C)*
 - *Oxigeno disolbatua (mg/l)*
 - *Eroankortasuna (mmho/cm)*
 - *Gazitasuna (mg/l)*
 - *Gardentasuna (Secchi-ren diskoa)*

2024ko irailaren 25a, asteazkena



- Nitratoak
- Ortofosfatoak
- Solido esekiak
- Klorofila
- Olioak eta koipeak

Baliabide estetiko-kulturalak edo paisajistikoak kontrolatzeko neurriak:

- *Obrak bere ingurunean integratzeko neurriak egokiro betetzen direla kontrolatuko da, une bakoitzean onartutako proiektura egokitzen direla bermatuz.*
- *Eraikuntzari dagokionez, eraikinen tipologiari arreta berezia eskainiko zaio, ahal den neurrian, udalerraren estetika manten dezaten.*
- *Jarduketetan paisaia-balioak eta etnografia historikoaren balioak kontuan hartzen direla zainduko da, eta, ahal den neurrian, arrantza-portu zaharren ingurumen-balioak mantenduko dira.*
- *Bereziki zainduko dira biribilgunea eta errepideak eraikitzeak sortutako jarduketak, Eusko Jaurlaritzaren katalogoetan kultura-ondarearen elementu gisa sartuta dagoen 49. elementua (Portu kalea z.g. helbidea duen etxea) babesteko helburuarekin.*

Baliabide berriztagarrien eta berriztaezinen kontsumoa kontrolatzeko neurriak:

- *Funtzionamendu fasean, hondakin-kudeaketari, ur- eta energia-kontsumoari, argiteriari eta abarri lotutako jasangarritasun-adierazleen jarraipena egin ahal izateko datu kualitatibo eta kuantitatiboak ezarriko dira.*

Hondakinak sortzearen eta airearen kutsaduraren gaineko kontrol-neurriak:

- *Hirigintza-dokumentazioan adierazitako ingurumen-neurriak eta ingurumen-azterketa estrategikoan txertatutako neurriak betetzen direla kontrolatuko da.*
- *Hondakin-kudeaketari, ur- eta energia-kontsumoari, argiteriari, mugikortasunari eta abarri lotutako jasangarritasun-adierazleen jarraipena egin ahal izateko datu kualitatibo eta kuantitatiboak ezarriko dira.*
- *Planaren aurreikuspenetan txertatutako ala txertatu gabeko jarduerak eragitea kontrolatuko da, ustekabeko eraginak sortzen diren egiaztatuz.*
- *Materia- eta energia-iturrien bidezko kutsaduraren kontrola egingo da.*
- *Orobat, hurrengo faseetan zehaztuko diren lur-mugimenduak eta trafikoaren gaineko eragina kontrolatuko dira.*



Giza osasuna kontrolatzeko neurriak:

- *Obra faseak eragindako hauts-eragozpenak saihesteko, portuko eraikinak oso gertu daudela kontuan hartuta, eragindako eremuak ureztatuko dira, hautsik ez sortzearren, batez ere, garai lehorrenetan.*
- *Obra fasean, non faktore hauen eragina handiagoa den, honako hauek egingo dira:*
 - *Obra-lanak gauean etengo dira. Eteteko modurik ez badago, etxebizitzan barruan sortutako zarata ez da LAeq, 1 min = 30 dBA baino handiagoa izango (sukaldea eta komuna salbu).*
 - *Bibrazio-mailari dagokionez, ISO 2631 arauaren 2. atalaren arabera, bibrazioak detektatzeko K indizeak ez du gaindituko $K \leq 10$ maila, eta horretarako, bibrazioa nabaria den kasuetan, gelarik kaltetuenean beharrezko diren neurriak hartuko dira, maila gainditzen ez dela egiaztatzearren.*
- *Ezarritako epeak betetzen direla kontrolatuko da, obra fasea behar baino gehiago ez luzatzearren.*
- *Obra fasean, inguruko ibilgailuen trafikoan ondoriorik sortuko balitz, bideetan egindako aldaketak egokiro seinaleztatu direla kontrolatuko da, eta epeak bete direla ere bai, eragozpenak gehiegi luzatu ez daitezen.*

Arriskuak kontrolatzeko neurriak:

- *Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen arabera, inbentarioan dauden lurzoruek arau horretan jasotako izapideak bete beharko dituzte.*

Zuzenketa-neurrien aplikazioa kontrolatzeko neurriak:

- *Ingurumen-azterketa estrategikoaren eta ingurumen-adierazpen estrategikoaren ingurumen-arloko muga eta baldintza guztiak betetzen direla kontrolatuko da.*

Ingurumen-azterketa estrategikoari ingurumena zaintzeko programa eranstea:

Arestian aipatutakoaz gain, eta Elantxobeko Portuaren Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren ingurumen-adierazpen estrategikoko E atalean adierazitakoa betetzeko eta hari erantzuteko (eta Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak egindako alegazioari erantzuteko), honako hau adierazten da: «Ingurumen-azterketa estrategikoak ikuskatze-programa bat deskribatzen du, HAPBan bilduriko zehaztapenen aplikazio egokia bermatzeko eta, hala badagokio, aurreikusitakoak ez diren beste ingurumen-efektu batzuk hautemateko. Programa hori gehiago zehaztu beharko da, aldagaietarako kontrol-parametroak, zaintza-aldizkakotasuna eta abar identifikatuz. Ildo horretatik, uren eraldatze-mailen jarraipena egitea izango da aurreikusitako kontrolaren funtsezko eginkizunetako bat».

2024ko irailaren 25a, asteazkena



Horregatik, ingurumen-azterketa estrategikoa idatzi duen enpresak gehigarri bat egin du, dokumentu horren gainean, aurreko baldintza betetzeko. Horrenbestez, ingurumen-azterketa estrategikoaren ingurumena zaintzeko programan ezarritako kontrolerako helburu gehienei buruzko informazioa areagotu du:

KONTROL OROKORRA

Deskribapena eta jarduketak:

Plangintzaren onespenean ezarritako baldintzak hartuko dira kontuan, baita sektorean eskumena duten organismo edo administrazioen kasuan kasuko baimenetan ezarritakoak ere.

Gainera, Plan Bereziaren ingurumen-helburuak beste plan batzuekin bat datozen kontrolatuko da, udalerrian ingurumen-ondorio metagarri edo sinergia negatiborik sortzen den kontrolatuz.

Lehenik eta behin, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozeduren ondoriozko ingurumen-artikuluak betetzen direla zainduko da; izan ere, horietan ingurumen-azterketa estrategikoan (IAE) eta ingurumen-adierazpen estrategikoan diseinatutako zuzenketa-neurriak jasoko dira. Proiektu fasean, honako hauek nabarmendu behar dira:

- Ingurumen-arloko oinarrizko legeriari dagokionez, baldintza-agirian eta erreferentziazko araudian jasotakoa izango da kontuan.
- Kontratatik laburpen-plano bat aurkeztuko du eta, bertan, obra-instalazioak non dauden zehatz-mehatz adieraziko da, hala nola makinaren parkea, material, olio eta erregaien biltegiak, eta sarbideak, baita kontrolpeko neurriak ere. Horiek guztiak Obra Zuzendaritzak onartu beharko ditu.
- Obrak abiarazi aurretik, aldi baterako okupatuko den eremuaren balizamendua egokia dela kontrolatuko da, behar-beharrezkoak direnak baino erasan gehiago ez izateko.
- Hala badagokio, Plan Bereziaren aldaketek edo doikuntzek eragindako ingurumen-alderdiak aztertu eta jakinarazi beharko dira, eta, beharrezkoa izanez gero, dagozkion zuzenketa-neurriak proposatu beharko dira.

2024ko irailaren 25a, asteazkena



- Instalazioak eta obra osagarriak kendu ondoren, okupatu diren azalerak tratatuko dira.

Aldizkakotasuna:

- Eragiketa aurreko txostena: txosten bakar bat egingo da eta, bertan, jarduketa, instalazio osagarri eta metatze-gune guztiak behar bezala zehaztuta eta adierazita daudela ziurtatuko da, ingurumen-agirietan deskribatutakoaren arabera. Txosten horretan, eragiketa aurreko kanpainen eta kontrolatu beharreko aldagai guztien emaitzak jasoko dira. Oinarri gisa erabiliko da, eragiketan zehar eta eragiketaren ondoren emaitzak alderatzeko.
- Hileko txostenak: kontrolatu behar diren ingurumen-alderdiak barne.
- Azken txostena: eduki hau izango du:
 - Ingurumen-arloko gorabeherak.
 - Hasierako Ingurumen Obraren Planarekiko desbideratzea.
 - Ingurumen-inpaktu nabarmenen bilakaera, hau da, aurreko ataletan aurreikusitakoaren arabera modu berezian kontrolatutakoena.
 - Aurreikusi gabeko inpaktuen agerpena.
 - Benetan gauzatutako neurriak.
 - Intentsitate-aldaketak edo zuzenketa-neurriak sartzea, aurreikusitako neurrietan desbideratze handiak eta etengabeak hauteman direlako.

Gainera, txosten bereziak aurkezteko aukera aurreikusten da obren garapen arruntari eragiten dion anomaliaren bat gertatzen denean, hala nola euri-jasak, ekaitzak, istripuak, gertaera sismikoak eta abar gertatzen direnean.

Arduraduna

- Obren zuzendaritza.
- Ingurumen Laguntza Teknikoa.

LUR-MUGIMENDUEN KONTROLA**Deskribapena eta jarduketak:**

2024ko irailaren 25a, asteazkena



Jarduketa honetarako materialen bolumen handia mugitu behar da eta, beraz, nahiko fase kritikotzat jotzen da. Horregatik, proiektuaren ondorengo faseetan xedatu beharko da. Printzipioz, jarduketa hauek kontrolatuko dira:

- Babes-pantailak erabiltzea lanerako karga-besoaren inguruan.
- Eremu hidraulikoa kaiaren betelanak egiteko sortu da, eta isurketa-eremuaren barruan frakzio finaren sedimentazioa errazten duten faktore guztiak kontuan hartuta diseinatu beharko da.
- Trakzio mekanikoko dragetan kuskua ondo doitzen direla kontrolatuko da, bereziki koilara-dragetan. Draga hidraulikoetan, ahalik eta energia gutxien kontsumitzen duten buruak erabiltzea komeni da, lohia sakabanatzea saihesten duten pantailak dituztenak.
- Dragatze-materialen kalitatea eta tipifikazioa kontrolatuko dira, dagozkion kudeaketa-neurriak har daitezela, «Materialak dragatzeko ingurumen-jardunbide onenen» arabera.
- Sobera geratu diren edo desegokiak diren materialak (dragatze-lanetan sortutakoak barne) eramateko egokiak diren zabortegeien jarraipena egingo da.

Aldizkakotasuna

- Hilero txosten bat egingo da, gutxienez, portuko obren fasean.
- Dragatze-lanetan, dikearen eraikuntzan eta biribilgunea egiten den bitartean, 2 eta 4 bisita artean egingo dira hilean.

Arduraduna

- Obren zuzendaritza.
- Ingurumen Laguntza Teknikoa.

NATURA-BALIABIDEEN GAINEKO KONTROLA

Deskribapena eta jarduketak:

- Obra eta jarduketa berrien xede diren espazioen jarraipena egingo da itsas inguruan aurreikusitako eragina ingurumen-azterketa estrategikoan aurreikusitakoa baino handiagoa ez dela kontrolatzeko. Jarraipena bereziki garrantzitsua izango da dike berria eraikitze prozesuan. Portuko eremuaren artifizializazio-intentsitatea

2024ko irailaren 25a, asteazkena



kontrolatu beharko da (m²), eta artifizializatu beharreko gainazal naturala Plan Berezian aurreikusitakoarekin bat datorrela egiaztatuko da.

- o Era berean, NATURA 2000 SAREAREN KONTSERBAZIO-NEURRIAK URDAIBAIKO ETA GAZTELUGATXEKO DONIENEO EREMUETAN dokumentuan jasotako neurriak betetzen direla kontrolatuko da, honako hauek, zehazki:

Kontserbazioa eta ingurumen-hobekuntza - Fauna:

- *N.4.1. Ekaitz-txori txikiaren eta ubarroi mottodunaren kolonietan, eta itsasoko 250 m zabaleko perimetro-zerrenda batean, honako arau hauek aplikatuko dira:*

- Ekaitz-txori txikiaren ugaltze-habitataren nahiz populazioaren kontserbazioari zuzenean nahiz zeharka, bereziki espeziearen ugalketari dagokionez, eragin liezaiketean esku-hartze eta jarduera guztiak debekatzea, hala nola duten urbanizazioak eta bideak eginez kostako habitata betiko eraldatzea kolonietarako irispidea erraztuz, eraikuntza- eta eraiste-hondakinak eta zaborra botatzea, eta poluigarri solido nahiz likidoak isurtzea, kanpatzea, ehiza, espeleologia eta eskalatzea.

- Lehorrera iristea ahalbidetzen duen edozein instalazio iraunkor mota eraikitzea ere debekatuta dago, baita ugalgaraian inguruan ontziak amarratzea ere.

- Berez nahiz beste batzuekin konbinatuta kalte egin liezaiketean bestelako plan eta proiektu guztiak ezinbesteko txosten bat beharko dute, non egin beharrekoek espeziearen kontserbazio-helburuei nola eragiten dieten egoki ebaluatuko den, eta, behar izanez gero, baldintzak ipiniko zaizkien haiei edota plan edo proiektuei jarraipena egitea xedatuko baita.

- o Horrela, obrako eremutik ekaitz-txori txikiaren eta ubarroi mottodunaren interes-eremuetara dagoen distantzia mantentzen dela kontrolatuko da, eta ez da inola ere 250 metroko zerrenda gaindituko. Ekaitz-txori txikiaren eta ubarroi mottodunaren interes bereziko eremua portutik 500 metrora baino gehiagora dago. Distantzia hori nahikoa da espezie horiei kalterik ez eragiteko. Hala ere, urak ez kutsatzeko eta zaratarik ez sortzeko prebentzio-neurri guztiak hartzen direla kontrolatuko da, batez ere espezie horien ugalketa-hilabeteetan zehar, egindako jarraipen-azterketek adierazten dutenaren arabera.

2024ko irailaren 25a, asteazkena



- Gaez, obra fasean eta Plan Bereziaren indarraldian zehar argiztapenak hegazti jakin batzuen gaeko jarduerari eragiten ez diola kontrolatuko da.
- Obren eta eragindako azaleraren inguruan (m²) espezie inbaditzaileak agertzen ez dela kontrolatuko da.

Aldizkakotasuna

- Hilero txosten bat egingo da, gutxienez, portuko obren fasean.
- Obren hasieran, hilean 2 eta 4 bisita artean egitea gomendatzen da, jarduketaren arabera eta ekaitz-txori txikiaren eta ubarroi mottodunaren bizi-zikloaren arabera.

Arduraduna

- Ingurumen Laguntza Teknikoa.

ITSAS UREN KALITATEAREN GAINEKO KONTROLA

Deskribapena eta jarduketak:

Obra egiten diren bitartean ondo kontrolatu beharko da horien kalitatea, aldian behin kontrol-kanpainak eginda, ur-laginak hartuta eta gero horiek aztertuta.

Itsas ingurunera isurketak egiteko aukerari dagokionez, portuaren kudeaketan txerta daitezkeen prebentzio-neurriak hartzea gomendatzen da. Beraz:

- Errefus solidoak edo likidoak isurtzea saihestera zuzendutako neurriak kontrolatuko dira (zaborra, kindurtzak garbitzea, etab.).
- Proposatutako gasolindegirako segurtasun-neurrien kopurua kontrolatuko da, instalazioen estankotasuna eta erregaia kargatzeko eta hornitzeko eragiketen segurtasuna bermatzeko.

Dragatze-lanek, dikearen eraikuntza-lanek eta dartsenaren handitze-lanek ondorio kaltegarriak izan ditzakete uren kalitatean, berriz ere partikulak esekitzen direlako.

- Horregatik, uren kalitatea aztertzeko kanpainak egingo dira, obren hasieran eragiketa aurreko laginketa bat eginda.

Kanpaina kopurua dragatze-lanen iraupenera eta betelanen iraupenera egokituko da. Ingurumen-kalitatearen arauak betetzen direla adierazi beharko da 1.

2024ko irailaren 25a, asteazkena



Dokumentu lagungarri gisa, ingurumen-zaintzarako planak kontsultatuko dira, hala nola «*Elantxobeko HUaren ingurune hartzailearen zaintza-plana (Elantxobeko Udal Mugartea)*» eta «*Euskal Autonomia Erkidegoko trantsizioko eta itsasertzeko uren ekologia-egoeraren segimendua egiteko sarea*» (Eusko Jaurlaritza).

Gaur egun, Eusko Jaurlaritzaren *Segimendua egiteko sarearen* arabera, kostaldeko uren egoera ekologikoa, kimikoa eta globala *Ona* da Elantxobeko itsasertzeko estazioan (Kai Arri) (Lea), L- L10. Hasiera batean, honako hauek izango dira aztertu beharreko parametroak:

- Temperatura (°C)
- Gazitasuna (mg/l)
- pH-a
- Uhertasuna
- Solido esekiak
- Oxigeno disolbatua (mg/l)
- Amonioa ($\mu\text{mol}\cdot\text{L}^{-1}$)
- Nitratoak ($\mu\text{mol}\cdot\text{L}^{-1}$)
- Fosfatoak ($\mu\text{mol}\cdot\text{L}^{-1}$)
- Metal astunak
- Hidrokarburoak

Laginketak bi mailatan egingo dira: gainazalean eta hondoa. Laginketa-puntuak obra-planarekin zehaztuko dira, jarduketan araberakoak izango baitira.

Aldizkakotasuna

Honako aldizkakotasun hau proposatzen da uren kalitatea kontrolatzeko:

- Eragiketa hasi aurreko txostena: eragiketa hasi aurreko txostenean, kostaldeko uren kalitateari buruzko datuak eskainiko dira, betiere aipatutako ingurumen-zaintzarako planek erregistratutakoaren eta lehenengo laginketa-kanpainaren emaitzen arabera.
- Hiru hilean behingo txostenak: portu-eremuan egiten diren jarduketetan, hiru hilean behingo analisiak egingo dira, uren kalitateari buruzko kasuan kasuko txostenarekin.

Arduraduna

- Ingurumen Laguntza Teknikoa.

2024ko irailaren 25a, asteazkena



BALIABIDE ESTETIKO-KULTURALEN EDO PAISAJISTIKOEN GAINEKO KONTROLA

Deskribapena eta jarduketak:

- Obrak bere ingurunean integratzeko neurriak egokiro betetzen direla kontrolatuko da, Plan Berezian zehazten denera eta une bakoitzean onartutako proiektura egokitzen direla bermatuz.
- Eraikuntzari dagokionez, eraikinen tipologiari arreta berezia eskainiko zaio, ahal den neurrian, udalerraren estetika manten dezaten.
- Jarduketetan paisaia-balioak eta etnografia historikoaren balioak kontuan hartzen direla zainduko da, eta, ahal den neurrian, arrantza-portu zaharraren ingurumen-balioak mantenduko dira.
- Bereziki zainduko dira biribilgunea eta errepideak eraikitzeak sortutako jarduketak, Eusko Jaurlaritzaren katalogoetan kultura-ondarearen elementu gisa sartuta dagoen 49. elementua (Portu kalea z.g. helbidea duen etxea) babesteko helburuarekin.
- Plan Berezia amaitu ondoren, berreskuratze-, birgaitze- edo leheneratze-jarduketen jarraipena egingo da.

Aldizkakotasuna

- Hileko txostenetan modu grafikoan dokumentatuko da proiektuaren paisaia-egoera.
- Era berean, azken txostenarekin batera, proiektuaren paisaia-integrazioari buruzko argazki-erreportaje bat aurkeztuko da.

Arduraduna

- Ingurumen Laguntza Teknikoa.

HONDAKINAK SORTZEAREN ETA AIREAREN KUTSADURAREN GAINEKO KONTROLA

Deskribapena eta jarduketak:

Hirigintza-dokumentazioan adierazitako ingurumen-neurriak eta ingurumen-azterketa estrategikoan txertatutako neurriak betetzen direla kontrolatuko da.

2024ko irailaren 25a, asteazkena



- Plan Berezia gauzatu aurretik, bitartean eta ondoren, sortutako hiri-hondakinen eta horien antzekoen (beira, papera/kartoa eta bilgarriak/plastikoak), hondakin arriskutsuen eta marpol hondakinen (kg/egun) jarraipena egingo da.
- Plan Berezia gauzatu aurretik, bitartean eta ondoren, kudeatutako hiri-hondakinen eta horien antzekoen (beira, papera/kartoa eta bilgarriak/plastikoak), hondakin arriskutsuen eta marpol hondakinen (%) jarraipena egingo da.
- Kontratistak hondakinak kudeatzeko agiria eta biltegiak eta isurketak egiteko baimenak aurkeztuko dizkie baimendutako kudeatzaileei eta administrazio eskudunei.

Airearen kutsadurari dagokionez:

- Airearen kalitatea kontrolatuko da, Plan Berezia gauzatu aurretik, bitartean eta ondoren. Elantxobeko portutik hurbilen dagoen Eusko Jaurlaritzaren EAeko Airearen Kalitatea Kontrolatzeko Sareko estazioa Mundakakoa da, eta bertan Oso ona da gaur egun airearen kalitatearen indizea.
- Atmosferara jariatzen diren partikulak ere kontrolatuko dira, obretatik gertuen dagoen etxebizitza-eremuan partikula jalkikorren kaptadoreak instalatuta.
- Obrek eragindako gainazalak ureztatzen direla kontrolatuko da, hautsik ez aireratzeko, batez ere eguraldi lehorrenetan.

Aldizkakotasuna

- Obrak hasi aurretik, obretan zehar eta obrak amaitzean, airearen kalitateari buruzko diagnostikoa egingo da.
- Hilero txosten bat egingo da, gutxienez, portuko obren fasean.

Arduraduna

- Obren zuzendaritza.
- Ingurumen Laguntza Teknikoa.

GIZA OSASUNAREN GAINEKO KONTROLA

Deskribapena eta jarduketak:

Obra fasean eragozpenik ez izateko, portuko eraikinak gertu daudela kontuan hartuta:

2024ko irailaren 25a, asteazkena



- Obra fasean, inguruko ibilgailuen trafikoari nola eragiten zaion eta bideetan gertatzen diren aldaketak behar bezala seinaleztatzen diren kontrolatuko da.
- Ezarritako obra-epeak betetzen direla kontrolatuko da, eragozpenak espero baino gehiago ez luzatzeko.
- Arkitektura-, hirigintza- eta natura-oztopoak edo bestelako oztopoak kentzeko edo gutxitzeko jarduketan kopurua zehaztuko da, Plan Berezia amaitzean.

Zaratari eta bibrazioei dagokienez, jarraipena egingo da:

- Inpaktu akustikoa murrizteko jarduketan edo neurrien kopurua zehazteko, obra fasean zehar eta Plan Berezia amaitzean.
- Gauzez obrak saihesteko. Eteteko modurik ez badago, obrek etxebizitzan barruan eragindako zarata ez da LAeq, 1 min = 30 dBA baino handiagoa izango (sukaldea eta komuna salbu).
- Bibrazio-mailari dagokionez, ISO 2631 arauaren 2. atalaren arabera, bibrazioak detektatzeko K indizeak ez du gaindituko $K \geq 10$ maila, eta horretarako, bibrazioa nabaria den kasuetan, gelarik kaltetuenean beharrezko diren neurriak hartuko dira, maila gainditzen ez dela egiaztatzearen.

Aldizkakotasuna

- Hilero txosten bat egingo da, gutxienez, portuko obren fasean.

Arduraduna

- Ingurumen Laguntza Teknikoa.

2024ko irailaren 25a, asteazkena



I. ERANSKINA

PLAN BEREZIAREN MEMORIAN EGINDAKO ALDAKETAK, KOSTALDEAREN ETA ITSASOAREN ZUZENDARITZA NAGUSIAREN 2021EKO OTSAILAREN 11KO TXOSTENAREN ONDOREN:

2.2. atala. (Plan Bereziaren xede den eremuaren deskribapena)

9. orrialdea / 1. paragrafoa

Honako hau gehitu da:

Elantxobeko portua kudeaketa autonomikoko portu-instalazio bat da. Haren kudeaketa Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatu zitzaion maiatzaren 14ko 2380/1982 EDaren bidez, eta, beraz, 1982ko apirilaren 6an eskualdatze-planoa egin zen. Horren arabera, eskualdatutako itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoaren azalera 28.656 m²-koa da (erref. G-6-Bizkaia).

2.2. atala. (Plan Bereziaren xede den eremuaren deskribapena)

10. orrialdea – 2. paragrafoa

Ñabardura hau gehitu da:

Bide hori portuaren eta Elantxobeko hiri-bilbearen arteko lotura da, eta zati batzuetan erreferentzia gisa erabiltzen da, *autonomia-erkidegoari kudeaketa eskualdatu zaion portuko itsaso eta lehorraren arteko estatu-jabari publikoa* mugatzeko.

2.3. atala. (Lehendik dauden eraikinak eta gaur egungo erabilerak)

12. orrialdea – 3. paragrafoa

Ñabardura hau gehitu da:

Plan Bereziaren xede den eremuaren barruan eta, beraz, *autonomia-erkidegoari kudeaketa eskualdatu zaion portuko itsaso eta lehorraren arteko estatu-jabari publikoaren* barruan, mota askotako erabilerak dituzten eraikinak daude, gehienak Elantxobeko herritarren zerbitzura dauden ekipamendu-izaerakoak, beste batzuk portuko jarduera nautikoarekin lotutakoak eta ostalaritzakoak, eta gutxi batzuk bizitegi-erabilerakoak.

2.3. atala. (Lehendik dauden eraikinak eta gaur egungo erabilerak)

12.-13.-14. orrialdeak:

Eraikin bakoitzaren ezaugarrietan honako aldaketa hau gehitu da:

Jabetza-araubidea:

Lurzorua: *Estatu-titulartasuneko* eta *autonomia-kudeaketakoa*

Eraikuntza: Elantxobeko Udala

2024ko irailaren 25a, asteazkena



2.6. atala. (Portuen arloko arauen erreferentziak)

18. orrialdea:

Ñabardura hau gehitu da:

B.2.- *autonomia-erkidegoari kudeaketa eskualdatu zaion portuko itsaso eta lehorraren arteko estatu-jabari publikoaren* erabiltzeko araudi aplikagarria (baimenak eta emakidak).

2.6. atala. (Portuen arloko arauen erreferentziak)

22. orrialdea:

Ñabardura hau gehitu da:

B.2.- *autonomia-erkidegoari kudeaketa eskualdatu zaion portuko itsaso eta lehorraren arteko estatu-jabari publikoaren* erabiltzeko araudi aplikagarria (baimenak eta emakidak).

3. atala. (Plan Bereziaren helburuak eta irizpide orokorrak)

23. orrialdea – 1. paragrafoa

Ñabardura hau gehitu da:

Plan Bereziaren helburu orokorra da *autonomia-erkidegoari kudeaketa eskualdatu zaion portuko itsaso eta lehorraren arteko estatu-jabari publikoaren* barruan sartzan den eremua erabat antolatzea. Eremu horren barnean hartuko ditu ur-lamina, ainguratze- eta atrakatze-eremuak, kaiak eta dartsenak, bide-sarea, bertan dauden eraikinak, hiri-zerbitzuak eta -azpiegiturak, eta dokumentu honetan xedatutakoaren arabera mugez barruan ezar daitezkeenak.

4.2. atala. (Plan Bereziak onartutako antolamendu-proposamena)

31. eta 32. orrialdeak

Justifikazio hau sartu da:

Jarduteko hiru alternatibak azaldu ondoren, horiek aztertu eta baloratu dira. Garrantzitsua da azpimarratzea balorazio horretan faktore erabakigarritzat hartu dela itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoa ahalik eta gutxien okupatzea.

Alderdi hori beti kontuan hartuta, pisuzko arrazoi nahikoak daudela ondorioztatu da hirugarren alternatiban (2. alternatiba) jasotako proposamena onartzeko; eta batez ere kontuan hartu dira horrek dakartzan hobekuntzak portuaren babes-baldintzei dagokienez,

2024ko irailaren 25a, asteazkena



eta, ondorioz ur-laminaren agitazioa murrizteari dagokionez; izan ere, horrela kanpoko dartsenen atrakatzeko baldintzak hobetzea ere ahalbidetzen da, egun dauden ainguratze-buien ordeztan pantalan berriak jarritz.

Nahiz eta hirugarren alternatiba horrek (2. alternatiba) ez duen bermatzen itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoa ahalik eta gutxien okupatzea, adierazi behar da aukera hori dela Plan Bereziaren helburu estrategikoak betetzea ahalbidetzen duen bakarra.

Izan ere, funtsezkoa da azpimarratzea hautatutako aukeran planteatzen den itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoa zabaltzea hurbilketa bat baino ez dela, gutxi gorabeherakoa eta zuzendaritza sustatzaileak Elantxobeko babes-azpiegituren antzekoetan duen esperientzian oinarrituta egindakoa. Bistakoa denez, etorkizunean, plangintza onartu ondoren, eraikuntza-proiektu batek arautuko ditu azpiegitura horren ezaugarriak, hura definitu eta justifikatzeaz gainera, eta proiektu horrek barnean hartuko ditu dagozkion azterketa teknikoak eta ebaluazioak, ikuspuntu teknikotik zein ingurumenekotik proposamenaren egokitasuna bermatzeko. Gainera, proiektu hori gauzatzeko, atxikipenaren aldeko nahitaezko txosten loteslea eduki beharko da, Trantsizio Ekologikorako Ministerioko Kostaldearen eta Itsasoaren Jasangarritasunaren Zuzendaritza Nagusiaren eskutik (edo hori ordeztan duen Espainiako organismo homologoaren aldetik).

Egindako antolamendu-proposamena, ildo horretan, aukera anbiziotsuena da portu-azpiegiturari dagokionez, eta barne-agitazioa murrizteko hobekuntza-programa osatzea du xede (bere garaian Tecnocean ingeniarietza-enpresak Eusko Jaurlaritzako Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak aginduta egindako «Elantxobeko portuan olatuek eta uhin luzeek eragindako agitazioari buruzko azterketan» bildutakoa). Hau da, nahiz eta itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoa ahalik eta gutxien okupatzea lehentasunezko faktorea izan den aukeren balorazioan, planteatutako hiru aukeretatik anbiziotsuena aukeratu behar da planaren helburuak bete ahal izateko, eta berriro esan behar da itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoaren irabazia portuaren babes-baldintzak hobetzeko gutxienekoa izan dela eta, ondorioz, barruko ur-laminaren agitazioa murrizteko. Horrela, eraikuntza-proiektua izango da etorkizunean babes-dikearen luzapenaren tamaina definituko duena.

4.6. atala. (Urbanizazioa, azpiegiturak eta hiri-zerbitzuak)

43. orrialdea – 2. paragrafoa

Hiru paragrafo hauek gehitu dira:

Instalazioa 1993. urte inguruan eraiki zen, baina eraikuntza-proiektua 1990eko ekainekoa da. Busturialdeko Ur Partzuergoari HUA kokatuta dagoen lurra okupatzeko administrazio-emakidaren agindua 1994ko ekainaren 17koa da, hau da, Kostaldeein buruzko Legea indarrean jarri ondorengo.

Gero, Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiaren 2016ko apirilaren 29ko Ebazpenaren bidez, HUAko urak lehorretik itsasora isurtzea baimendu zen, betiere

2024ko irailaren 25a, asteazkena



aipatutako Busturialdeko Ur Partzuergoak egindako eskaerari jarraikiz.

Bi dokumentuak (emakida-agindua eta isurketarako baimena) eranskin gisa jaso dira Plan Berezi honetan.

Hirigintzako araudia: 29. artikulua. Saneamendu-sarea

68. orrialdea

Honako hau gehitu da:

Hondakin-uren araztegia eta saneamendu-sareak itsasertzean daude, *autonomia-erkidegoari kudeaketa eskualdatu zaion portuko itsaso eta lehorren arteko estatu-jabari publikoaren* barruan, hain zuzen, eta, ondorioz, Kostaldee buruzko Legearen 44.6 artikuluan adierazitako debekua urratzen dute; alegia, ezin da urak arazteko instalaziorik eta kolektorerik kokatu itsasertzean, kostarekiko paraleloan, ez bada itsasertzetik 20 metrora baino gehiagora.

Horrenbestez, instalazio horiei dagokien araubide iragankorra aplikatuko zaie.

HUAri dagokionez, araubide iragankor horrek Eusko Jaurlaritzako Herri Lanetako sailburuaren 1994ko ekainaren 17ko Agindua izango du erreferentzia (lurzoria okupatzeko administrazio-emakida ematen duena), baita Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiaren 2016ko apirilaren 29ko Ebazpena ere, HUAko ur araztuak itsasora isurtzea baimentzen duena.

Hirigintzako araudia: 33. artikulua. Z.EQ.P3 lurzatia: «Ostalaritzako ekipamendua»

72. orrialdea

Honako hau gehitu da:

Erabiltzeko baldintzak: Berezko erabilera: .- Hirugarren sektorea, Ostalaritza *Berriaz debekatzen da ostatu-jarduerak gauzatzea, aldi baterako edo lantzean behin izan arren, Kostaldee buruzko Legeak berriaz debekatzen duelako erabilera hori.*

Erabilera bateragarriak: .- Portu-erabileren berezko eskakizunei lotutakoak, dagokion legeria sektorialarekin bat etorritik.

Araudi honetako 7. artikuluan adierazitako sailkapenaren arabera, honako hauek dira Z.EQ.P3 lurzatian aurreikusitako erabilerak:

e) Industria- eta merkataritza-erabilerak:

Azken ondorioa

93. orrialdea

Hurrengo paragrafoa gehitu da:

Elantxobeko Portuaren Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren testu bategina, *behin*

2024ko irailaren 25a, asteazkena



betiko onartu beharrekoa, 2021eko martxoan amaitu zen (2020ko maiatzaren 5eko Aginduaren bidez onartu zen behin-behineko izaeraz). Bertan, Itsaso eta Lehorraren arteko Jabari Publikoko Zuzendariordetza Nagusiko zuzendari nagusiak, Ingurumeneko estatu-idazkariak eta Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak 2021eko otsailaren 11ko txostenean jasotako kontsiderazioak jasotzen dira.

2024ko irailaren 25a, asteazkena



PLAN BEREZIAREN MEMORIAN EGINDAKO ALDAKETAK, KOSTALDEAREN ETA ITSASOAREN ZUZENDARITZA NAGUSIAREN 2022KO OTSAILAREN 01EKO TXOSTENAREN ONDOREN:

4.3.- ZONAKATZEA ETA ERABILERA XEHATUAK: HIRI-AZPIEGITUREN EREMUA

39. orrialdean, honako hau ezabatu da:

Hondakin-uren araztegia eta saneamendu-sareak itsasertzean daude, itsaso eta lehorraren arteko estatu-jabari publikoaren barruan, hain zuzen, eta, ondorioz, Kostaldeei buruzko Legearen 44.6 artikuluan adierazitako debekua urratzen dute; alegia, ezin da urak arazteko instalaziorik eta kolektorerik kokatu itsasertzean, kostarekiko paraleloan, ez bada itsasertzetik 20 metrora baino gehiagora.

~~[Horrenbestez, instalazio horiei dagokien araubide iragankorra aplikatuko zaie.](#)~~

Hirigintzako araudia: 29. ART. SANEAMENDU-SAREA

68. orrialdean, honako hau ezabatu eta aldatu da:

Hondakin-uren araztegia eta saneamendu-sareak itsasertzean daude, autonomia-erkidegoari kudeaketa eskualdatu zaion portuko itsaso eta lehorraren arteko estatu-jabari publikoaren barruan, hain zuzen, eta, ondorioz, Kostaldeei buruzko Legearen 44.6 artikuluan adierazitako debekua urratzen dute; alegia, ezin da urak arazteko instalaziorik eta kolektorerik kokatu itsasertzean, kostarekiko paraleloan, ez bada itsasertzetik 20 metrora baino gehiagora.

~~[Horrenbestez, instalazio horiei dagokien araubide iragankorra aplikatuko zaie.](#)~~

HUAri dagokionez, ~~[araubide iragankor horrek](#)~~ Eusko Jaurlaritzako Herri Lanetako sailburuaren 1994ko ekainaren 17ko Agindua izango du erreferentzia (lurzorua okupatzeko administrazio-emakida ematen duena), baita emandako ondorengo luzapenak (2014an eta 2019an), eta Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiaren 2016ko apirilaren 29ko Ebazpena ere, HUAko ur araztuak itsasora isurtzea baimentzen duena.

Hirigintzako araudia: 40. artikulua. Kanpoko dikea eta dartsena handitzeko baldintzak, biribilgunea egiteko.

79. orrialdea

Honako hau gehitu da:

Plan Bereziak kanpoko dikea handitzea aurreikusten du (32 metro itsasorantz), baita dartsena biribilgune batekin handitzea ere, Erriberako kaiak eta Astilleroko dikearen hasierak bat egiten duten puntuan.

2024ko irailaren 25a, asteazkena



Bi jarduketek funtsezko aldaketak eragiten dituzte eskualdatutako itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoan; beraz, obra horiek garatzen dituzten proiektuek Trantsizio Ekologikorako Ministerioko Kostaldearen eta Itsasoaren Jasangarritasunaren Zuzendaritza Nagusiaren nahitaezko aldeko txosten loteslea izan behar dute (edo haren ordezkio estatu-organismo homologoaren aldetik), atxiki daitekeen estatu-jabari publikoaren mugei, aurreikusitako erabilerei (Kostaldee buruzko Legearen 49.4 artikuluan eta Kosten Erregelamendu Orokorren 105. artikuluan xedatutakoaren arabera baimendutako erabilerearako erabiliko den azaleraren eta kokapenaren aipamen zehatza barne) eta itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoa babesteko beharrezko diren neurriei dagokienez, eta horiek gabe ezin izango dira behin betiko onartu.

Gainera, kontuan hartuta Plan Bereziak hautatutako alternatibak eskualdatutako itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoaren eremua handitzea proposatzen duela, nahitaezko atxikipen-eskaera izapidetu behar duen prozeduraz gain, hautatutako alternatibaren aurreikuspenak garatuko dituen eraikuntza-proiektuak alternatiben azterketa zehatza jaso beharko du, horietako bakoitzari buruzko balorazio zehatua eta azken hautaketaren justifikazioa barne.

Era berean, Kosten Erregelamendu Orokorren 91. eta 97. artikuluetan ezarritako baldintzak bete beharko ditu. Edonola ere, eta Kosten Erregelamendu Orokorren 61.3 artikuluan araututakoaren arabera, ahalik eta gutxien okupatuko da itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoa.

Proiektua onartu ondoren, okupazio-titulu hori akta batekin eta atxikipen-plano batekin formalizatuko da, betiere Kosten Erregelamendu Orokorren 106. eta 107. artikuluei jarraikiz, eta obrak ezingo dira hasi akta hori formalizatu arte.

5. DOKUMENTUA. DOKUMENTAZIO GRAFIKOA

93. orrialdea

Honako hau gehitu da:

Elantxobeko Portuaren Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren testuategina, behin betiko onartu beharrekoa, 2023ko otsailean amaitu zen (2020ko maiatzaren 5eko Aginduaren bidez onartu zen behin-behineko izaeraz). Bertan, Itsaso eta Lehorraren arteko Jabari Publikoko Zuzendariorde Nagusiko zuzendari nagusiak, Ingurumeneko estatu-idazkariak eta Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak [2022ko otsailaren 1eko eta 2021eko otsailaren 11ko txostenetan jasotako](#) kontsiderazioak jasotzen dira.

2024ko irailaren 25a, asteazkena



I. eranskina gehitu zaio Plan Bereziaren memoriari. Bertan, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak Elantxobeko HUAri buruz dituen dokumentuak jasotzen dira, honako hauek, hain zuzen ere:

- 1. dokumentua. *Herri Lan eta Garraio sailburuaren Agindua, 1994ko ekainaren 17koa, Busturialdeko Ur Partzuergoari portuko jabari publikoko lursailak okupatzeko emakida ematen diona, bertan baitago Elantxobeko hondakin-uren araztegia (Bizkaia).*
- 2. dokumentua. *URA Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiaren Ebazpena, 2016ko apirilaren 29koa, Elantxobeko hondakin-uren araztegiko hondakin-urak lehorretik itsasora isurtzea baimentzen duena.*
- 3. dokumentua. *Garraio Azpiegituren zuzendariaren Ebazpena, 2014ko urriaren 20koa, Busturialdeko Ur Partzuergoari C-K3-9/1994 jabari publikoaren emakida-epea lehenengoz luzatzeko aukera ematen diona, portuko jabari publikoko lurak okupatzeko, bertan baitago Elantxobeko hondakin-uren araztegia.*
- 4. dokumentua. *Portu eta Itsas Gaietako zuzendariaren Ebazpena, 2019ko uztailaren 16koa, Busturialdeko Ur Partzuergoari jabari publikoaren emakida-epea bigarrenengoz luzatzeko aukera ematen diona, portuko jabari publikoko lurak okupatzeko, bertan baitago Elantxobeko hondakin-uren araztegia.*
- 5. dokumentua. *Elantxobeko HUAk itsaso eta lehorren arteko jabari publikoan dituen ezarpen eta okupazio zehatza jasotzen dituen dokumentazio grafikoa, lehorretik itsasorako isurketa-kolektorearen argazkiak barne.*
- 6. dokumentua. *Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak izenpetutako Elantxobeko HUAren okupazioari, diseinuari eta araudiaren betetze-mailari buruzko informazioa, itsaspean isurbiderik ez dagoela justifikatuz, lurretik itsasorako isurketa-kolektore bat baizik (hustubideen hodia); hark ez du kaiaren lerroa gainditzen.*
- 7. dokumentua. *Elantxobeko HUAren ingurune hartzaileari dagokion ingurumen-zaintzarako plana (Elantxobeko udal-mugartea). 2022ko kanpaina*

2024ko irailaren 25a, asteazkena



PLAN BEREZIAREN MEMORIAN EGINDAKO ALDAKETAK, KOSTALDEAREN ETA ITSASOAREN ZUZENDARITZA NAGUSIAREN 2024KO URTARRILAREN 14KO TXOSTENAREN ONDOREN:

Hirigintzako araudia: 38. artikulua. Z.EQ.P8 lurzatia Ontziola zaharraren eraikina

77. orrialdea

Honako hau gehitu da:

Erabiltzeko baldintzak: Berezko erabilera: .- Hirugarren sektorea, Ostalaritza

Berariaz debekatzen da ostatu-jarduerak gauzatzea, aldi baterako edo lantzean behin izan arren, Kostaldeei buruzko Legeak berariaz debekatzen duelako erabilera hori.

Erabilera bateragarriak: .- Portu-erabileren berezko eskakizunei lotutakoak, dagokion legeria sektorialarekin bat etorritik.

Araudi honetako 7. artikuluan adierazitako sailkapenaren arabera, honako hauek dira Z.EQ.P8 lurzatian aurreikusitako erabilerak:

d) Erabilera komunitario publikoak

e) Industria- eta merkataritza-erabilerak

4.7.3 atala. (Kosten Erregelamendu Orokorraren 105. artikulua bete izanaren justifikazioa)

47. orrialdea

Honako hau zuzendu da:

Gaur egun bertan dauden merkataritza- eta ostalaritza-erabilerei dagokienez, horien guztien azalera eraikia 701 m²-koa izango litzateke. Azalera hori honako lokal hauei dagokie:

.- Z.EQ.P2 eraikineko beheko solairua, jatetxe bat instalatzeko aurreikusia

Azalera: 183 m²

.- Z.EQ.P3 terraza estalia. Taberna-erabilera

Azalera: 63 m²

.- Z.EQ.P4 eraikineko solairua. ~~Taberna~~ [Kontsultategi medikoa](#)

Azalera: 157 m²

Hirigintzako araudia: 29. artikulua. Saneamendu-sarea

68. orrialdea

Honako hau aldatu da:

Saneamendu-sarea mota bereizlekoa izango da. Erabili beharreko materialek Biztanleguneen Saneamendu Proiektuak Idazteko Arauak bete behar dituzte, baita Busturialdeko Ur Partzuergoak ezarritako baldintzak ere.

2024ko irailaren 25a, asteazkena



Hondakin-uren araztegia eta saneamendu-sareak itsasertzean daude, autonomia-erkidegoari kudeaketa eskualdatu zaion portuko itsaso eta lehorraren arteko estatu-jabari publikoaren barruan, hain zuzen, eta, ondorioz, Kostaldee buruzko Legearen 44.6 artikuluan adierazitako debekua urratzen dute; alegia, ezin da urak arazteko instalaziorik eta kolektorerik kokatu itsasertzean, kostarekiko paraleloan, ez bada itsasertzetik 20 metrora baino gehiagora.

HUAri dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Herri Lanetako sailburuaren 1994ko ekainaren 17ko Agindua izango du erreferentzia (lurzorua okupatzeko administrazio-emakida ematen duena), baita emandako ondorengo luzapenak (2014an eta 2019an), eta Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiaren 2016ko apirilaren 29ko Ebazpena ere, HUAko ur araztuak itsasora isurtzea baimentzen duena.

Edonola ere, hauxe errepikatzen du: lurzorua okupatzeko administrazio-emakidaren azken luzapena amaitu ondoren, azpiegiturak itsasertzetik kanpo eta 20 metrora baino gehiagora kokatu beharko dira.

Hirigintzako araudia: 40. artikulua. Kanpoko dikea eta dartsena handitzeko baldintzak, biribilgunea egiteko.

79. orrialdea

Honako hau gehitu da:

Plan Bereziak kanpoko dikea handitzea aurreikusten du (32 metro itsasorantz), baita dartsena biribilgune batekin handitzea ere, Erriberako kaiak eta Astilleroko dikearen hasierak bat egiten duten puntuan.

Bi jarduketek funtsezko aldaketak eragiten dituzte eskualdatutako itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoan; beraz, obra horiek garatzen dituzten proiektuek Trantsizio Ekologikorako Ministerioko Kostaldeen eta Itsasoaren Jasangarritasunaren Zuzendaritza Nagusiaren nahitaezko aldeko txosten loteslea izan behar dute (edo haren ordezkoko estatu-organismo homologoaren aldetik), atxiki daitekeen estatu-jabari publikoaren mugei, aurreikusitako erabilerei (Kostaldee buruzko Legearen 49.4 artikuluan eta Kosten Erregelamendu Orokorren 105. artikuluan xedatutakoaren arabera baimendutako erabileretarako erabiliko den azaleraren eta kokapenaren aipamen zehatza barne) eta itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoa babesteko beharrezko diren neurriei dagokienez, eta horiek gabe ezin izango dira behin betiko onartu.

2024ko irailaren 25a, asteazkena



Gainera, kontuan hartuta Plan Bereziak hautatutako alternatibak eskualdatutako itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoaren eremua handitzea proposatzen duela, nahitaezko atxikipen-eskaera izapidetu behar duen prozeduraz gain, hautatutako alternatibaren aurreikuspenak garatuko dituen eraikuntza-proiektuak alternatiben azterketa zehatza jaso beharko du, horietako bakoitzari buruzko balorazio xehatua eta azken hautaketaren justifikazioa barne.

Hala ere, itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoa ahalik eta gutxien okupatzearen printzipioa sartuko da alternatiba desberdinak alderatzeko funtsezko irizpide gisa.

Era berean, Kosten Erregelamendu Orokorraren 91. eta 97. artikuluetan ezarritako baldintzak bete beharko ditu. Edonola ere, eta Kosten Erregelamendu Orokorraren 61.3 artikuluan araututakoaren arabera, ahalik eta gutxien okupatuko da itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoa.

Proiektua onartu ondoren, okupazio-titulu hori akta batekin eta atxikipen-plano batekin formalizatuko da, betiere Kosten Erregelamendu Orokorraren 106. eta 107. artikuluei jarraikiz, eta obrak ezingo dira hasi akta hori formalizatu arte.